

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA 2019-2020.ikasturtea

ESKOLA SEGREGAZIOA; GAUR EGUNGO EGOERA AZTERTZEN.

Egilea: Mainer Salazar

Zuzendaria: Iraide Fernández

Laburpena

Txosten honetan, irakurleak Vitoria-Gasteiz hirian ematen den eskola segregazioa aztertzen duen Gradu amaierako lana izango du eskuragarri. Izan ere, agerian dagoen gaia da segregazioa, eta are gehiago, kultura edo jatorri segregazioa. Ondorioz, ikerketa hau gai horren ingurukoa izango da. Horretarako, alderdi teoriko eta praktikoak bereiztu dira. Alderdi teorikoetan zehar, iturri bibliografiko eta dokumentu desberdinen azalpen eta ikerketa bideratuko da, ondoren, burututako hiru elkarrizketa desberdinen analisian aritzeko. Elkarrizketak burutzeko, irakasle eta aditu desberdinak erabili dira, bakoitzaren ezaugarrien araberrako galderak eginez. Behin iturrien eta elkarrizketen analisisa bukatu dela, txosten honi amaiera emango zaio ondorio eta proposamen batzuekin.

Hitz gakoak: Segregazioa, migrazioa, aniztasuna, eskola eta integrazioa

Resumen

En este documento, el lector tendrá a su alcance un Trabajo de fin de grado en el que se analiza la situación de segregación escolar que se da en la ciudad de Vitoria-Gasteiz. La segregación escolar es un tema muy frecuente hoy en día, y aun son más frecuentes los temas de segregación por origen o cultura. Por ello, este análisis será respecto a eso. Para realizar dicho análisis, se diferenciarán tramos teóricos y prácticos. En los tramos teóricos se analizaron diferentes teorías y fuentes bibliográficas para después pasar al tramo práctico donde se analizaran tres entrevistas. Para las entrevistas, se ha preguntado a dos profesores y a una experta en el tema. Para ello las preguntas de las entrevistas se han realizado teniendo en cuenta la situación y las características de cada uno de los entrevistados. Finalmente,, se presentarán unas consecuencias y una propuesta.

Palabras clave: Segregación, migración, diversidad, escuela e integración.

Abstract

On this document, the reader has available a Final Degree Project which is going to analyze the situation of school segregation in Vitoria-Gasteiz. School segregation is a really common topic nowadays, but so are cultural or origin segregations. That is the reason that this research has been done. In order to analyze different aspects of this term, a theoretical and a practical section are going to be differenced. On the theoretical parts, many bibliographical sources and theories were studied, and then in the practical part, three interviews were done. For the process of the interviews, two different teachers and an expert were asked many different questions. This questions were also done depending on the situation and according to the characteristics of each person. After this sections, a consequence part and a proposal are going to be exposed.

Key words: Segregation, migration, diversity, school and integration.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	4-5.or
2. Justifikazioa.....	6-7.or
3. Metodologia eta helburuak.....	8-9.or
4. Marko teoriko eta kontzeptuala	
a. Funtsezko kontzeptuak	
i. Inmigrazioa.....	10.or
ii. Aniztasuna.....	10-11.or
b. Ikuspegi teorikoak	
i. Hezkuntza eta integrazioa. Eskola ereduak.....	11-12.or
c. Eskola segregazioa.....	13-15.or
d. Ikasle etorkinen ezaugarri orokorrak.....	15-17.or
e. Irakasle funtzioa.....	17.or
5. Emaitzak	
a. Inmigrazioa gaur egun.....	18-20.or
b. Aniztasunaren trataera eta eskola arrakasta Vitoria-Gasteizko eskola desberdinetan.....	20-23.or
c. Segregazioa.....	23-26.or
d. Eskola barneko elementuak	
i. Ikasleak.....	26-28.or
ii. Irakasleak.....	28-30.or
iii. Familiak.....	31.or
e. Egoera errealera hurbilduz.....	32.or
6. Ondorioak.....	33-35.or
7. Proposamena.....	36-38.or
8. Bibliografia.....	39-44.or
9. Eranskinak.....	45-58.or

1. Sarrera

Gradu amaierako lan hau, gaur egun, Vitoria-Gasteiz hirian aurki daitezkeen eskolen inguruko azterketa burutzera bideratua dago, arreta berezia jarritz migrazio- fenomeno eta eskola segregazioa deritzenei. Eskola horien errealitatea ikusita, ikasle etorkinen banaketa desorekatua berezi baitaiteke.

Aztergai izango diren eskola errealitateak oso desberdinak direla kontuan hartzeko beharra dago, bakoitzean maila sozioekonomiko eta kultural oso desberdinak bereizten dira eta. Beraz, aniztasuna funtsezko azterketarako elementua izango da lan honetan.

Gainera, ikus daitekeenez, gaur egun migrazio fenomenoaren tasak gora egin du, eta horrekin bat elkarrekin jarduten duten kultura eta jatorriak. Ondorioz, egun eskola gehienetan famili jatorri ezberdinak dituzten haurrak aurki daitezke, horietako haur askoren jaioterria Vitoria-Gasteiz bera delarik. Hau da, kontzeptu konplexuak nahasten dira: atzerritarra, migrazioa eta bigarren belaunaldiak.

Horren inguruko ikerketa sakonagoa burutzeko asmoz, familia etorkin ugariko eskola baten eta familia etorkinik gabeko beste eskola baten ikerketa burutuko da. Helburua, eskola segregatu baten eta bereiztuta dagoen baten diskurtsoak alderatzea izango da, haien arteko desberdintasunak dauden antzeman ahal izateko. Horretarako, elkarrizketak erabiliko dira. Elkarrizketak ikastetxeko irakasleei egingo zaizkie, haiek baitira errealitatea gertutik ezagutzen dutenak.

Ikerketari amaiera sakonagoa eman ahal izateko gainera, adituen ikuspegia integratuko da. Horretarako, elkarrizketa bat egingo zaio Maite Fouassier Zamalloari, Immigrazioaren Euskal Behatokiko (IKUSPEGI) EHUko ikertzaileari, zeinek migrazioari, hezkuntzari eta bigarren belaunaldiei buruzko hainbat argitalpen dituen.

Beraz, alderdi metodologikoari begira, sakoneko elkarrizketez gain, iturri zientifikoak eta ikerketak ere erabiliko dira, ikastetxeen eta immigrazioaren argazki osoa egiteko.

Ikerketa prozesu oso hau bideratu ahal izateko, Gradu amaierako lan (GRAL aurrerantzean) honetan zehar hainbat izango dira bereiztuko diren atalak. Lehenengo, justifikazio atala agertuko da, non gai hau aukeratzera eraman nauten motibazio eta egoerak azalduko diren. Ondoren, marko teorikoarekin jarraituko da. Marko teoriko honetan zehar, lanaren oinarri

izango diren aipamen teorikoak agertuko dira. Geroago, ikerketaren helburuak, hipotesiak eta emaitzak agertuko dira. Azkenik, burututako lan osoa ulertu eta horri amaiera sakonagoa eskaintzeko, eranskinen atala bereiztuko da, bertan erabilgarriak izan diren elkarrizketak, dokumentuak etab. kokatu ahal izateko.

2. Justifikazioa

GRAL honen gaia aukeratzeko eskatu zidatenean, nire interesguneak sailkatzeko beharra aurkitu nuen. Interesgune horien artean, gehien erakartzen ninduen bereizketa sozialaren gaia zen. Gai horren baitan mota askotako bereizketak aurkitzeko aukera dago, baina nire esperientziari begira, bereizketa etnikoaren gaia aukeratu nuen.


Nire bizitzari dagokionez, askotan familia etorkinak dituzten hurrekin aritu izan naiz lanean, eta egoera desberdin asko ikusteko aukera izan dut. Haur bakoitzaren mundua oso desberdina den heinean, egoerak ere aldaketak jasan egiten ditu kasu batetik bestera. Hala ere, ikusi ahal izan dudanez, Vitoria-Gasteiz hirian egon badaude jatorriaren arabeko haurren sailkapenak burutzen dituzten eskolak, era inplizitu batean izanda ere.

Eskola kontzertatu batean praktikaldian ibiltzeak ere eragina izan du nire gaiaren aukeraketan, gai izan naizelako Vitoria-Gasteizko eskola kontzertatuen egoera ulertzeko eta eskola publiko gehiengoaren egoerarekin konparatu ahal izateko. Hala ere, badaude segregazioan parte hartzen duten eskola publikoak hirian bertan.

Amaitzeko, askotan entzun izan ditudan egoera arrotz ugarik ere gai hau aukeratzera bultzatu naute, egoeraren ulerkuntza bermatu ahal izateko eta horri aurre egiteko tresnak diseinatu ahal izateko.

Migrazioa haren aldetik, gaur egungo gizarte zein egoera sozialean oso agerikoa den gaia da, urteekin batera gora egin duen fenomeno delako. **Migración y desarrollo** artikuluan azaltzen denez, migrazio fenomenoak harekin bat bestelako aldaketak dakartza. (Canales, 2013). Horiek, honako grafikoan azaltzen dira:

Eskema 1. Migrazioarekin bat datozen aldaketak



Iturria: Polis Revista latinoamericana

Aldaketa horien artean, goiko eskeman ikus daitekeenez, lan postuen globalizazioa, gizartearen norabidea, kapitalaren areagoketa eta herritar kopuruaren aldaketak daude besteak beste. Aldaketa horiekin bat, azpialdaketa txikiagoak datoz. Hori dela eta, eskematik ondoriozta daitekeenez, migrazio fenomenoak gizarte zein hiritar guztiei eragiten dien fenomeno da, beraz, guztion ardura.

Vitoria-Gasteiz hirian, inmigrazio tasa EAeko tasa altuena dela jakina da, zehazki, %12.7a, Bilbok duen %11.3aren eta Donostiak duen %10.6aren aurrean (Gatón, 2018). El Correo egunkarian honakoa aipatzen du honen inguruan: *“Esta ciudad ahora atrae población, nacional y extranjera, como el conjunto de Euskadi. Es una tierra que ofrece oportunidades”* (Martin, 2018). Beraz, esan dezakegu Vitoria-Gasteiz hiriak eskaintzen dituen baldintza, administrazioen gestionatzeko moduagatik, zein errekursoengatik hiritar inmigrante kantitate handiagoa daukala bai eta harekin bat, segregazio tasa handiago eta larriagoa.

3. Helburuak eta metodologia

GRAL honen bitartez, Vitoria-Gasteiz mailan gaur egun existitzen den eskola segregazioaren egoera ulertzea bilatzen da. Eskola segregazio horrek, zenbait eskolen baitan jatorri familiar desberdinetako haurrak biltzen ditu, beste eskola batzuetan jatorri familiar berdineko haurrak biltzen dituen bitartean. Beraz, helburu orokorra hau da: Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako eskola-segregazioa ezagutzea eta aztertzea.

Helburu orokor hau lortzeko, hainbat helburu espezifiko ezberdin zehaztu izan dira lanaren baitan. Honako hauek izango dira:

H1.Eskolak behatu ondoren, segregazioa burutzen dela ikusita, haren diagnostikoa egitea. **(Eskoletan burutzen den segregazioaren diagnostikoa egitea)**

H2.Segregazioa dagoela jakiteaz aparte, egon badaude segregazio mota ezberdin ugari. Hori dela eta, segregazio desberdintasun horiek identifikatzea izango litzateke beste helburu espezifiko bat. **(Vitoria-Gasteizen dauden eskolen arteko segregazio desberdintasunak identifikatzea)**

H3.Burutzen den segregazioak, haurrengan bestelako eragina izan dezake, hala nola, garapen psikologikoan, autoestimuan, kalifikazio eskolarretan. Ondorioz, segregazioak haurrengan duen eraginaz jabetzen saiatuko gara lan honen bidez.

- **Hezkuntza politikak segregazioaren inguruko eragina neurtu eta ulertzea**
- **Segregazioa deusestatzeko hezkuntza politikaren proposamena garatzea**

Metodologiari dagokionez, planteatutako helburuak betetzeko, GRAL honetan zehar metodo desberdinak erabiliko dira. Alde batetik, iturri estatistiko eta bibliografikoak aipatu eta behatu egingo dira, datu ofizialak eskuratzeko asmoz. Bestetik, metodologia kualitatiboa ere erabiliko da, eskoletako parte diren zenbait irakasleei elkarrizketa sakonak burutuz. Horretarako, gidoi espezifikoak planteatu dira pertsona bakoitzari zuzentzeko asmoz. Hala ere, elkarrizketen helburu orokorra, aukeratutako eskola bakoitzean burutzen den segregazio maila eta horren eragina neurtzeko informazioa jasotzea izango da. Eranskinen atalean planteatutako elkarrizketa hauek jasoko dira.

Elkarrizketak burutzea oso atal garrantzitsua izango da lan honetan, lehen mailako informazioa eskuratzeko oso era baliagarria delako. Gainera, Miguel Vallesek haren **Entrevistas cualitativas** liburuan aipatzen duenez, “*El arte de la conversación, aprendido de modo natural durante la socialización, constituye el mejor fundamento conceptual y práctico para el aprendizaje de las diversas formas de entrevista cualitativa.*” (Valles, 1997, 37.or)

Liburuan bertan, azaltzen denez, hainbat pausu bete behar dira elkarrizketa kualitatibo egokia sortzeko. Pausu horiek, elkarrizketatuen aukeraketa; eta orduaren, lekuaren eta elkarrizketa erregistroen aukeraketa egitea dira. (Valles, 1997)


Hau kontuan hartuz, 3 elkarrizketa egin dira: bat segregazioa duen ikastetxe bateko irakasle bati, bestea segregaziorik gabeko ikastetxe bateko irakasle bati eta azkena gaian aditua den pertsona bati. Elkarrizketa guztiak COVID-19 birusak eragindako neurriei egokitzeko asmoz, idatziz egin dira, ondoren, haien azterketan aritzeko. Elkarrizketa-profil horiekin ikuspegi espezifiko bat eta ikuspegi globalago bat lortuko da.

Aurrerantzean, diskurtsoak aztertzean, elkarrizketak izendatzeko kode hau erabiliko da:

- Ikastetxe publiko bereiziko irakaslea (E-SP)
- Ikastetxe itundu ez-bananduko irakaslea (E-INS)
- Aditua (E-PA)

Laburbilduz, eskema honetan (2.eskema), helburu bakoitza betetzeko erabiliko den metodologia aurkezten da:

2.Eskema. Helburuak eta metodologia



Iturria: Egileak sortutakoa

4. Marko teorikoa eta kontzeptuala

GRAL honen marko teorikoari hasiera emateko, lehenik eta behin erabiliko diren zenbait kontzeptu argituko dira, ondoren azalduko diren teoria puntuak errazago eta argiago ulertarazteko.

4.1. Funtsezko kontzeptuak

4.1.1. Inmigrazioa

Inmigrazio prozesua, migrazio prozesu baten baitan ulertzeko beharra dago. Migrazio prozesua, pertsona edo pertsona talde batek, jatorrizko herrialde bat uztean datza beste herrialde batera joateko. Sandra Gil Arujok, **La migración, un camino entre el desarrollo y la cooperación** (Gil, 2005) artikuluan aipatzen duen moduan, gaur egun, uste denez, 150 milioi pertsona haien herrialdeetatik kanpo bizi dira, datu kuantitatiboek jarraituz.

Nieves Zuñigak, aurreko artikulua berean aipatzen duenez, migrazio internazionalak, haien aldetik, prozesu globalizatu baten parte bezala ulertu behar dira, urte askotan zehar migrazio prozesuak existitu izan baitira, baina egun migrazio horien egitura aldatu delako konfigurazio global berriaren ondorioz. Gainera, migrazio horien arrazoi nagusia, alderdi politiko, sozial eta ekonomikoetan aurki daitezkeen egoera arrotzetatik ihes egiteko beharra izaten da. Bestalde, migrazio prozesu horiek, gehienbat pobretuta dauden herrialdeetatik, dibergenteak diren herrialdeetara izaten dira, dependentzia politiko, komertzial eta teknologikoen ondorio.

Jatorrizko herrialdeak begirada sozial batetik behatuz, ondorio garrantzitsuak daudela ikus daiteke, gehienbat alderdi familiarri dagokionez, eta jatorrizko herri horiekiko loturen apurketari dagokioez. Migrazioak dituen eragin eta ondorio psikologikoak behatzeko, **Los efectos psicológicos de ser migrante** (Psicólogos online, 2017) artikulua erabilgarri egingo da. Bertan aipatzen denez, herrialde berri batera ailegatzeko prozesuak, antsietate eta urduritasun jarrerak sor ditzazke. Gainera, batzuetan gertatzen denez, hizkuntza zailtasunak ematen dira, eta horiek prozesua zaildu egiten dute.

4.1.2. Aniztasuna

Aniztasuna, kontzeptu gisa, desberdintasun hitzari egiten dio erreferentzia. Mota askotako aniztasunak bereizi egiten dira, adibidez, hezkuntza saileko webgunean aipatzen direnez,

kultur-aniztasuna, gaitasun aniztasuna, sexu joeren aniztasuna, genero aniztasuna eta baliabide sozioekonomikoen aniztasuna.

Kasu honetan, kontuan hartuko den aniztasuna, kulturala izango da. Horri dagokionez, aipatu beharra dago kultura beraren baitako pertsonen arteko desberdintasunak existitzen direla. Desberdintasun horiek bai eta kultura desberdinek sortzen dute kultura aniztasuna.

Kultur-aniztasuna izeneko artikuluan ulertarazten denez, aniztasuna, ezaugarri positibo gisa ulertzeko beharra dago. Ondorioz, honakoa esaten da; *“Kultura-aniztasunak hezkuntzarako edota garapen pertsonalerako ahalmen handia du, desberdin egiten gaituenari esker –hizkuntzak, ohiturak, oroimen historikoa, sinesmenak, etab.–, elkarrentzat aberasgarri garelako; eta aukera hori batzen gaituenari esker mamitzen da askotan”* (Malagon eta Robles, datarik gabe, 1.or)

4.2. Ikuspegi teorikoak

4.2.1.Hezkuntza eta integrazioa: eskola ereduak

Integrazioa, *“zerbait dela-eta baztertuta dagoen pertsona –autoktonoa zein kanpoko– edo jende talde gutxitu oso bat gizarteko kide bihurtzea, betiere gainerako kide ororen maila berean, bai izatez, bai eta zuzenbidez ere”* dela aipatzen da **Etorkinak eta Esplotazioa, Kultur-aniztasuna eta Integrazioa** izeneko eta Eusko Jaurlaritzak argitaratutako artikuluan (Mendizabal, 2009, 73.or).

Egun, gizarte komunitate berean dauden kultur desberdinek haien artean ezartzen dituzten harremanen arabera, 4 integrazio eredu desberdintzen dira. Eredu horiek ondorengoak dira: asimilazioa, interkulturalitatea eta kulturartekotasuna.

Asimilazioari dagokionez, kultura nagusi bat eta txikiago bezala bereizten diren kulturak daudenean ematen da. Kultura nagusiak, haren aldetik, txikiagoak diren kulturak barne hartu, eta deusestatu egiten ditu, haren baitan hartuz.

Kultura artekotasuna, kultura desberdinak bereizten direnean ematen da eta ez batek ez besteek ez dute kulturarik haren baitan hartzen. Hala ere, nahiz eta kultura ezberdinak egon, ez dago haien arteko interakziorik eta era banatu bateko konbibiencia burutzen dute, hau da, koexistentzia.

Amaitzeko, interkulturalitateari dagokionez, kultura ezberdinak elkarrekin jarduten dute eta bizi dira, kultura bakoitzeko giza eskubideen aurka doazen alderdiak alde batera utzita.

Eskola segregazioak, haren aldetik, eredu sozial multikulturala bultzatu egiten duela behatu daiteke; kultura ezberdinetako haurrak eskola espezifikotan isolatzen direlako. Horrek, kultura minoritarioak egotea ahalbidetzen du, baina kultura nagusiarekin erlazionatzeko zailtasunak ere ezartzen ditu. Eskola gizartearen isla dela kontuan hartuta, egungo segregazio egoerak erakusten digu gure egungo gizartean, hegemonikoa den kultura bat dagoela bai eta menpeko kulturak. Kultura hegemonikoa, **La hegemonia cultural** (Cortes Ramirez, 2014) artikuluan Rymond Williams autoreak aipatzen duenez, hegemonia kultural hitza, kultura baten dominantzia adierazteko erabiltzen da. Gainera, artikulua dioenez, kultura hegemonikoak boterea bereganatzen du, gainontzeko kulturek haren finkapenak eta ezaugarriak onartzen dituzten heinean.

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza eredu behatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2007.urtean argitalatutako **Euskal hezkuntza sistemaren antolamendua eta ezaugarriak** maketa behatuko da. Bertan, hiru hezkuntza printzipio bereizten dira:

- *“Ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza eskaintzeko beharra, hezkuntza-sistemaren maila guztietan, pertsona guztiek eskola-arrakasta lor dezaten”* (Eusko Jaurlaritza, 2007, 9.or). Beraz, ikasle guztien garapena zihurtatzeko asmoz, kalitate ona duen hezkuntza eskaini behar zaio pertsona orori.
- *“Hezkuntza-komunitatearen partaide guztiek helburu horren alde egiteko beharra”* (Eusko Jaurlaritza, 2007, 9.or). Printzipio honek adierazten duenez, Euskal Autonomi Erkidegoko gizartearen parte den pertsona guztiek, kalitatezko hezkuntza eskaini ahal izateko ahaleginetan aritu behar dira, hau da, elkarlanean.
- *“Europar Batasunak datozen urteetarako proposatutako hezkuntza-helburuekin hartutako konpromisoa”* (Eusko Jaurlaritza, 2007, 9.or).

Beraz, era labur batean azalduta, haur guztiek hezkuntza berdina jasotzeko eskubidea izango dute, jatorri eta ezaugarri desberdinak bereiztu gabe. Gainera eskola inklusiboaren bilatzearen garrantzia aipatzen da, eskolako partaide guztien aldetik.

4.3.Eskola segregazioa

Eskola segregazioa, kasuan kasuko ezaugarriak kontuan hartuta, ikasleen arteko bereizketa sortzea da. Nahiz eta segregazioa aztertzeke irizpide anitzak dauden, GRAL honen bidez, lehen aipatu den moduan, irizpide kulturala hartuko da ardatz.

Horretarako, 2018.urtean idatzitako **Acogida del alumnado inmigrante recién llegado en la escuela inclusiva. El caso de Cataluña, País Vasco y Francia** artikulua hartuko da erreferentzia gisa. Bertan, Espainia mailan egiten den segregazioa azaltzen da, baina GRAL honetan, Euskal Autonomia Erkidego mailako informazioa aztertuko da. Aipatutako artikuluan, ondorengoa azaltzen da: *“El tema más urgente a la hora de abordar la educación con alumnado inmigrante es tener en cuenta el problema de las concentraciones de niños y niñas de origen extranjero en determinados centros”* (Etxebarria, Garmendia, Murua eta Arrieta, 2017, 96.or). Beraz autoreek, aztergai dugun egoera aipatzen dute. Gainera, kontuan hartu beharko da eskola segregazioa eskola publiko eta eskola pribatuen arteko desberdintasuna izan daitekeela bai eta eskola publikoen artekoa.

Aurretik aipatutako artikuluan aipatzen denez, haurren segregazioa kulturen arabera burutzen da, haurren banaketa eskolarra horretan oinarrituz. Horren eraginez, kultura anitzeko eskolak bai eta kultura desberdin gutxiko eskolak sortzen dira.

Bestalde, Jesus Manuel Septien Ortiz idazleak **Mugarik gabeko eskola, ikasle etorkinen ikaskuntza Araban** artikuluan aipatzen duenez, azken urteetan migrazio tasak kopuru handietan gora egin du. Hala ere, aipatzen denez, etaparen arabera tasaren banaketa desberdina izaten da, Lanbide Heziketan zein Haur Hezkuntzako etapetan tasa handienak emanaz. Batxilergoan aldiz, tasa txikiena ematen da. (Septien, 2013)

Datuak dokumentatzeko, 2013-2015.urteetan, Eusko Jaurlaritzak argitalatutako, **La educación en Euskadi** informean aipatzen denez, jatorri desberdinetako haurren banaketa, eskola ezaugarrien arabera izaten da, eskola publikoaren eta kontzertatuaren arteko aldea agerian utziz. Eusko Jaurlaritzak 2017.urtean argitaratutako, **Guía para docentes** txostenean aipatzen duenez, *“La escuela pública, incluye los centros públicos gestionados por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, por otros departamentos del Gobierno Vasco, por las Corporaciones Locales o por el Consorcio Infantil Haurreskolak”* (Eusko

jaurlaritza, 2017, 11.or). Aldiz, txosten berean aipatzen denez, eskola kontzertatua, entitate pribatuek kontrolatzen duten eskola mota da, dirulaguntza publikoen bidez ere funtzionatzen duena.

Bestalde, segregazioa ulertzeko, euskal eskolen hizkuntza ereduak ere azaltzeko beharra dago. Horretarako, aurretik erabilitako **Guía para docentes** txostenean, 3 hizkuntza eredu desberdin bereizten dira. Alde batetik A eredu. Honi dagokionez, honako hau aipatzen da; *“enseñanza en castellano como lengua vehicular, excepto en la asignatura de Lengua y Literatura Vasca”*(Eusko Jaurlaritza, 2017, 10.or). Ondorioz, hezkuntza prozesuaren ehuneko nagusia Gaztelaniaz burutzen da. Bestetik, B eredu bereizten da. Hari dagokionez, honakoa azaltzen da: *“enseñanza de una parte de las asignaturas en castellano y otra en euskera”*(Eusko Jaurlaritza, 2017, 10.or). Beraz, heziketa prozesua Euskaraz zein Gaztelaniaz ematen da. Azkenik, D eredu bereizten da. Txostenak honen inguruan honakoa aipatzen du; *“Enseñanza en euskera como lengua vehicular, excepto en la asignatura de Lengua y Literatura Castellana”* (Eusko Jaurlaritza, 2017, 10.or).

Ondorioz, A eredu eta D eredu aurkakoak direla beha daiteke; A ereduan gaztelaniazko hezkuntza bultzatzen delarik, eta D ereduan euskaraz oinarritutako hezkuntza.

Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuz, Euskal Autonomia Erkidegoan bereizten diren eskolak sailkatzeko, alderdi ekonomiko zein linguistikoa kontuan hartu beharko direla esan daiteke. Beraz, hauek dira EAEn aurki daitezkeen hezkuntza ereduak: eskola pribatua A eredu, eskola pribatua B eredu, eskola pribatua D eredu, eskola publikoan A eredu, eskola publikoan B eredu eta azkenik, eskola pribatua D eredu.

Ikasleria inmigrantearen bai eta jatorri inmigranteetatik jaiotako bigarren belaunaldiko ikasleen matrikulazio tasak bereizteko, eskola publiko zein pribatuko eremu guztiak dira aztergai. **II Plan de atención educativa al alumnado inmigrante en el marco de la escuela inclusiva e intercultural 2016-2020** txosten ofizialean ageri denez, ikasle inmigranteen eta natiboen arteko matrikulazio desberdintasunak nabarmenak dira. Ondorioz, ikasle inmigranteak eskola publikoan matrikulatzeko joera izan ohi dute; aldiz ikasleria natiboak eskola publiko zein pribatua presentzia handia izaten duen bitartean (Eusko jaurlaritza, 2016).

Izan ere, eskola segregazioa ulertzeko, maila sozioekonomikoa aztertu behar da. Maila sozialak, familien diru ingresuen kantitatea mugatu egiten du. Horrek askotan, eskola publikoa behe mailako familiako umeetara mugatzen du.

Bestalde, ikasle inmigrantei dagokienez, askotan, kurtso hasierako epeetatik kanpo egiten dituzte matrikulazioak, Ikuspegi inmigrazioaren behaketa zentroaren esanetan. Horrek, matrikulazio lekua aukeratzeko trabak jartzen dizkie, eta soilik plaza libreak izaten dituzten eskoletan matrikulatzea ahalbidetzen die.

Euskadi mailan, Eusko Jaurlaritzak, 2020ko urtarrilaren 16an **Boletín oficial del estado** informean aipatu zuenez, eskola admisio eta aukeraketa prozesuaren baitan, alderdi desberdin ugari kontuan hartzen dira (Eranskinak I). Alderdi horien artean, etxebizitzaren gertutasuna, familien urteko errenta, eskola berean ikasten edo lan egiten duen senideen existentzia, famili handiko partaide izatea, dibertsitate funtzionlak, eta bestelako alderdiak daude. Gainera, eskola bakoitzak alderdi propioak ezartzeko aukera ere izan ditzake. Alderdi hauek puntuazio baremo baten baitan sartzen dituzte hurrei ondoren eskola esleipena burutzeko (Eusko Jaurlaritza, 2020). Hauen inguruko informazio ugariagoa, eranskinen atalean aurki daiteke.

Honekin amaitzeko, eta ondorio gisa aipatu beharrekoa da erroldatze arazoei dagokienez, aurretik aipatutako etxebizitza hurbiltasun alderdian aipatzen den baremazio puntuak lortzeko, erroldatze faltsuen arazoa ematen dela askotan Vitoria-Gasteizen arrazoi desberdinek bultzatuta, hala nola, familiek esleitutako eskolak gustoko ez izatea edota bestelako eskolak preferentzia gisa izatea.

4.4. Ikasle etorkinen ezaugarri orokorrak

Aurreko atalean aipatutako Jesus Manuel Septien Ortiz idazleak **Mugarik gabeko eskola** artikuluan, ikasle etorkinen ikaskuntza Araban artikulua oinarri hartuta, ikasle etorkinen ezaugarri orokorrak ezarri egin dira, bakoitzaren desberdintasun pertsonalak nabarmenduz. Honako hauek dira ezaugarri horiek: EAeko eskoletan, nahiz eta kultura minoritarioak egon, badaude ugariagoak diren kulturak, hala nola, hispanoamerikarrak, ipar afrikarrak eta magrebtarrak.

Ikasleria migrantea egotea eskoletan, lan handiko erronka da, kultura desberdintasun handia dagoenez, aniztasun horri erantzun egokia emateko beharra dagoelako. Horren ildotik, aurretik aipatutako artikuluan honakoa aipatzen da; *“Gutxiengo handiak egoteak lana erraztuko luke antolakuntzaren aldetik, antzeko tratamendua izango luketelako, baina ikasleak integratzeko zailtasun gehiago sortuko lituzke, taldea edukiz gero zailagoa izango litzatekeelako gainerako ikasleekin harremanak sortzea”* (Septien, 2006, 81.or).

Talde kultural ezberdinak egoteak, erlijio desberdintasunak, hizkuntza desberdintasunak eta bestelako alderdien desberdintasuna suposatzen du. Horrek, ikasgelaren zein eskolaren aberastasun kulturala bermatzen du, kulturartekotasuna areagotuz.

Ikasleria inmigranteak dituen hezkuntza premia bereziei begira, gainontzeko ikasleek izan ditzaketen hezkuntza premia berdinak dituztela aipatzen da. Gainera, artikuluan, esaten denez, *“hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen proportzioa bertako ikasleen artean dagoen proportzioaren antzekoa da”* (Septien, 2006, 81.or).

Gainera, artikuluan bertan aipatzen da, jatorri desberdinetako ikasleak bereiztu egiten direla. Bereizketa horren baitan, honakoak aipatzen dira:

- Ikasle hispanoamerikarrak. Hizkuntza berdineko ikasleak dira orokorrean, eta horrek haien integrazioa bultzatzen du hezkuntza sisteman. Hala ere, Jose Manuel Septienek aipatzen duenez, *“azpimarratu behar da hizkuntza bera hitz egin arren, ezberdintasun dialektalak daudela”* (Septien, 2006, 82.or).
- Afrika Iparraldeko ikasleak. Jatorri honetako ikasleei dagokienez, arrakasta eskolarraren itxaropena ez da oso altua, hainbat faktore ezberdinen eraginez. Bestalde, hizkuntza desberdintasuna existitzen da kultura minoritario honi dagokionez. Oso aipagarria da gainera honakoa, *“Guraso askok ere heziketa oso eskasa jaso dute, eta askotan garrantzi gehiago ematen diote lan baten interesari (edo beharrari), ondo ordainduta ez egon arren, semealabek ikasten jarraitzeari baino”* (Septien, 2006, 83.or).
- Beste jatorri minoritarioetako ikasleak, non Europar ekialdeko, Portugaleko, Asiako eta beste herrialdeetako ikasleak dauden.

Ikus daitekeen moduan, jatorri anitzekoak dira EAEko eskolen baitan dauden ikasleak. Hauen integrazio prozesuari dagokionez, errazagoa ala zailagoa izango da, jatorrizko kulturaren eta kultura hegemonikoaren antzekotasunen arabera. Hau da, zenbat eta antzekotasun handiagoak egon kulturen artean, orduan eta integrazio prozesu errazagoa emango da. Antzekotasun hauek hizkuntzan eman daitezke adibidez.

4.5.Irakasle funtzioa

Irakaslearen paperak berebiziko garrantzia du ikasleen heziketa prozesuan. Hala ere, ikastetxe bakoitzaren metodologiaren arabera, irakaslearen papera desberdina izango da.

Haur Hezkuntzako etapan, irakasleak, laguntzaile papera betetzeaz gain, segurtasuna eskaini beharko du. Horrela, atxikimendu segurua sortuko da. Atxikimendu mota hori sortzea oso garrantzitsua da, irakasle ikasle erlazio osasuntsua sortzeko. Atxikimendua, hurrek pertsona heldu batekiko sortzen duten harremana da (Ainsworth eta Bowlby, 1991). Gainera, mota desberdinak bereizten direla esan behar da; segurua, ez segurua, anibalentea eta nahasia.

Ikasleria migranteari dagokionez, familia bakoitzaren egoeren berri izatea izango litzateke aproposena, modu horretan, trataera pertsonalizatua zihurtatzeko, eta haurren arrakasta akademiko bai eta pertsonala positibotasun psikologikoan oinarritu ahal izateko, Pigmalion efektua abiapuntutzat hartuz. Pigmalion efektuak, pertsona batengan jartzen den itxaropena aztertzen du. **Pigmalion efektua eta bere eragina** artikuluan aipatzen denez, *“pertsonen gehiengoak, kanpotik inposatutako helburuak betetzeko ahaleginak egiten ditu, gure denboraren zati handi bat berez nahi ez ditugun ekintzak burutuz emanaz edota aurrera jarraitzeko hitzartutako bizimodu mugatu bat eramanez”* (Aginako, 2017). Beraz, askotan gizartearen nahaiak gure nahien gainetik kokatzen ditugu, onespena lortzeko asmoz.

Ondorioz, irakasleak haurrengan itxaropen maila altua badu eta horren adierazpena egiten badu, hurrek autoestimua altuagoa garatu ahal izango dute eta horrek arrakasta handiagoa izatera eramango ditu.

5. Emaidzak

GRAL honetan, metodologia atalean aurretik aipatu izan den moduan, elkarrizketak bai eta informazio iturrien ikerketak erabili dira.

Elkarrizketak burutzeko, 2 irakasle ezberdinen testigutza jaso da, hainbat galdera desberdin plantetatuz gidoian (eranskinetan eskuragarri). Gainera, aipatu beharra dago irakasle horietatik batek Gasteizko eskola publikoan egiten duela lan, zehazki, nahiko segregatua dagoen eskola batean; elkarrizketatutako beste irakasleak aldiz, eskola itunduan jarduten du, segregaziorik jasaten ez duena. Horrela, dauden errealitate desberdinak erakusten dituzten diskurtsoak biltzen saiatu da: eskola publikoa eta itundua; eskola segregatua eta ez segregatua. Errealitatearen irudi zuzenago hau osatzeko, aditu bati elkarrizketa bat ere egin zaio. Horrela, segregazioari buruzko diskurtsorik akademikoena edo teorikoena ere lortuko dugu; zeharkako irudia.

Behin elkarrizketak burutu direla bai eta informazio iturriak aztertu direla, emaitza desberdinak eskuratu dira. Hala ere, GRAL honen atal hau hobeto antolatzeko eta marko teorikoaren koherentzia mantentzeko, azpiatal desberdinetan banatu egin dira emaitzak: gaur egungo egoera, aniztasunaren tratuera Gasteizko eskoletan, segregazioa eta azkenik eskola barneko elementuak.


5.1. Inmigrazioa gaur egun

Euskal Autonomi Erkidegoak duen biztanleri inmigranteen portzentaia nahiko altua da gainotzeko autonomiekin konparatuz, konkretuki EpData elkarteak 2020an argitaratu duenez, poblazio tasaren %32, 42a biztanleri atzerritarrak osatzen du. Hau da, jatorri atzerritarra duten biztanleak. Euskal Autonomi Erkidegoak konkretuki, 2.181.919 biztanle ditu, eta horietatik, 13.046 dira atzerritarrak (EpData, 2020). Datu hauen inguruan, aipatzekoa da, nazionalitate atzerritarra bai eta jatorri atzerritarra duten pertsonak hartzen direla kontuan; hau da, bai beste herrialdeetatik etorritako pertsonak bai eta Vitoria Gasteizen bertan jaiotako bigarren belaunaldiko biztanleak.

Ikuspegi inmigrazio behatokiak egindako analisiaren baitan, inmigrazio tasaren analisia burutzen da 1998. urtetik 2019. urtera. Bertan ikus daitekeenez, 2019. urtean, Arabak 39.956, Bizkaiak 108.55 eta Gipuzkoak 73.473 biztanle inmigrante zituen (Ikuspegi, 2019).

Ondorioz, biztanle kopuru desberdintasunei bai eta inmigratio kopuru desberdintasunei behatuz, eta INE elkarteak 2019an argitaratutako datu demografikoak erabiliz, honako portzentaiak eskuratu dira: Arabako poblazioaren %12.05, Bizkaiko %9.41 eta Gipuzkoako %10.24a, inmigranteak dira. Datu horiek hurrengo grafikoa ikus daitezke. (1. Grafikoa).

1. Grafikoa: Biztanle migranteen banaketa EAEn, 2019



Iturria: Autoreak egindakoa

Oso aipagarria da gainera, Euskal Autonomi Erkidegoko biztanle atzerritarren tasak 14.888 pertsonekin gora egin duela, eta ondorioz, biztanleri osoaren %10a suposatzen duela. Biztanleri atzerritarren tasa hori, azkenengo 9 urteetan eman den tasarik altuena da (Ikuspegi, 2019).

Eustat elkarteak, hau da, Euskal Estatistika Erakundeak, Vitoria-Gasteizko hiritarrak aztertu, eta inmigratioaren tasa, %13.45 an kokatzen du.

Oso aipatzekoa da, Gasteizen dagoen inmigratio tasa Euskal Autonomi Erkidegoko tasa altuena dela. Gainera, Araban bizi diren atzerritarren %81 Gasteizen bizi dira (39.956); beraz, esan dezakegu Araban bizi diren atzerritarrak hiriburuan biltzen direla (Ikuspegi, 2019).

Inmigratio tasa horren hazkundera, Gasteizen kokatuta dauden eskola askotan nabaritu egiten da. Elkarrizketatu diren irakasleek, haien klaseetako datu ugari eskaini ondoren, honako emaitzak eskuratu dira: Aztertutako lehengo zentroan ¹aritzen den irakaslearen kasuan, ikasleen gehiengoa atzerritarra da, besteak beste, haren ikasgelaren %90a. Aztertu den

¹ Publikoa eta nahiko segregatua

bigarren zentruko² irakaslearen kasuan, haren ikasgelako ikasleetatik bat ere ez da atzerritarra.

5.2. Aniztasunaren trataera eta eskola arrakasta Gasteizeko eskola desberdinetan

Aniztasunaren trataera, ikastetxe bakoitzaren araberakoa da. Horri erreferentzia egiteko, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako **Euskal Hezkuntza sistemaren Antolamendua eta Ezaugarriak** artikulua aztertu da. Bertan aipatzen denez, ikastetxe bakoitzak haren hezkuntza proiektuaren baitan aukeratuko ditu aniztasunaren trataera burutzeko neurriak (Eusko Jaurlaritza, 2007). Gainera, ikastetxe oro, programa bai eta bestelako neurriak izatera behartuta dago, aniztasunaren tasa alde batera utzita. Adibidez, egoerei egokitutako harrera plana burutu beharko zaie ikasle etorriberriei ongietorria emateko. Modu horretan, kulturen balorazioa egiten da, segurtasuna eta harrotasuna mantenduz. Harrera plan horien zehaztasunak emateko, eta eskolei argibideak eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzak txostenak jartzen ditu eskuragarri, non harrera planen inguruko informazioa bai eta betebeharrak aipatzen diren (Eusko Jaurlaritza, 2004). Harrera plan baten behaketa egiteko bestalde, Errekabarri ikastetxekoa hartuko da eredu. Plan horretan, egoera desberdinak planteatzen dira, horiei argibideak eskaintzeko asmoz, hala nola, eskolara iritsi ahalako unean egin beharrekoak; Irailean iristekotan...Plan osoa eranskinen atalean dago eskuragarri.

Bestalde, Ikasle etorkinen arrakasta akademiko zein pertsonala zihurtatzeko programa desberdinak eskaintzen zaizkie eskolei Eusko Jaurlaritzarik. Horien artean honakoak aurki daitezke: Hamaika esku, Hauspoa edota Bidelaguna.

Bidelaguna proiektua, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako proiektua da, non eskola orudetatik kanpo, ikasleei laguntza akademikoa eskaintzen zaien eskola publikoetan (Eusko Jaurlaritza, 2020). Eusko Jaurlaritzak 2020. urtean proiektu honen inguruko argibideak argitaratu ditu txosten batean. Bertan, programari eskaintzen zaion dirua; parte hartzen duten ikasleen profilak; orientabideak bai eta monitoreen egitekoak zehazten dira. Gainera, aipatzen denez, Hamaika Esku programan parte hartzen duten eskolek lehentasuna izango dute proiektu hau martxan jartzerakoan. Gainera, eskolen arteko preferentziak ezarriko dira, lortutako baremazio puntuen arabera. Baremazio hori, honako irizpideen araberakoa izango da:

² Itunpekoa eta ez segregatua

3.eskema. Baremazio tasak

Porcentaje P de alumnado becario de 5º y 6º de Primaria /1º y 2º de la ESO

P < 35	0 puntos
35 <= P < 50	1 punto
50 <= P < 60	4 puntos
60 <= P < 70	6 puntos
70 <= P < 80	8 puntos
80 <= P	10 puntos

Porcentaje P de alumnado inmigrante participante en el programa

P < 5	0 puntos
5 <= P < 20	1 puntos
20 <= P < 50	2 puntos
50 <= P < 80	3 puntos
80 <= P	5 puntos

Porcentaje P de alumnado perteneciente al colectivo gitano... participante en el programa

P < 5	0 puntos
5 <= P < 20	1 puntos
20 <= P < 50	2 puntos
50 <= P < 70	3 puntos
70 <= P	5 puntos

Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2020

Beraz, programa martxan jartzeko lehentasuna izango dute, maila sozioekonomiko baxuko ikasle ugari dituzten ikastetxeek bai eta ikasle inmigrante zein ijito tasa handiena dutenek.

Hamaika esku programari dagokionez, eskola publikoan emaitza akademiko baxuak lortzen dituzten ikasleei dago zuzenduta, beharrezko 4 alderdi desberdin azpimarratuz; ikastetxea testuinguru normalizatua izatea; familiekin erlazio estua; administrazioen laguntza zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinak. (Eusko Jaurlaritza, Data ezezaguna).Eusko Jaurlaritzak programa honen inguruko zehaztasunak txosten batean bildu ditu.

Hauspoa proiektua, ikastetxe publikoetan 2013. urtetik aurrera martxan jarri den proiektua da, non eskola orduetan lantzen diren kontzeptu eta gaien errefortzua egiten den tailer edota bestelako metodo berritzaileen bidez (Hezkuntza Saila, 2018). Proiektuan parte hartzeko,

baremazio prozesu bat jasan behar dute ikastetxeek non arlo desberdinak kontuan hartuko diren. Hala ere, kasu honetan, ikasle profila behatuz, honakoa agertzen da:

4.Eskema. Hauspoa barmeazioa

PORCENTAJE DE BECARIOS SUPERIOR AL 50%	hasta 5 puntos
Entre el 30 y el 45% de alumnado becario.	<i>0,5 puntos</i>
Entre el 45 y el 60% de alumnado becario.	<i>2 puntos</i>
Más del 60% de alumnado becario.	<i>3 puntos</i>
Centros participantes en el proyecto Hamaika Esku o dotados de recurso INE.	<i>5 puntos</i>

Iturria: Eusko Jaurlaritza, 2015

Kasu honetan, ikusi daitekeenez, programan ez da ikasle inmigranteen inguruko baremazio zehatzik egiten. Hala ere, maila sozioekonomikoa kontuan hartzen da, eta maila baxuko ikasle gehiago dituzten eskolek baremazio puntu gehiago eskuratzen dituzte programan parte hartzeko aukera gehiago jasoz.

Arrakasta programak ondorioz, orokorrean maila sozioekonomiko baxua duten ikasleei zuzenduta daude bai eta ikasle inmigranteei, ikasleek eskuratzen dituzten emaitza akademikoek eraginda. Emaitza horiek bestalde, GRAL honen emaitzen atalen barnean dagoen ikasleen azpiatalean aztertuko dira.

Eusko Jaurlaritzak proposatzen dituen neurri zein programez gain, ikastetxeek bai eta irakasleek haien aldetik neurri eta ekintza desberdinak martxan jartzeko aukera dute. Adibidez, Vitoria-Gasteiz hiriko Samaniego eskolan, Bake Eskola proiektua jarri zen martxan, ikasleekin batera, larunbatetan bestelako ekintza inklusiboak egiteko eta ikasleen arrakasta pertsonala bultzatzeko asmoz. Ekintza horien artean, honakoak egiten dituzte; zumba, sukaldaritza tailerrak, Olentzero eguna... Ikastetxe bakoitzeko ikasleen gainera, ekintza desberdinak burutzeko aukera izango duten haien ikasgelen baitan.

Elkarrizketen bidez, eta goian aipatu diren ikasle inmigranteen kopuruak kontuan hartuta, aniztasun kulturalaren inguruko informazioa jaso da. Ikusgarria da elkarrizketatutako eskola publikoak aniztasun kultural handiagoa duela itunduak baino. Jatorri desberdinetako ikasleak

izatean, kultura desberdin ugariaren nahasketa ematen delako gelan bertan; ikasle etorkin gutxi daudenean ematen ez dena. Dena den, nahiz eta jatorri berdineko haurrak izan, kultura era desberdinean ulertu daitekeela esan beharra dago.

Kultur aniztasunaren inguruan galdetzerakoan, emaitza desberdinak eskuratu dira eskola motaren arabera. Eskola publiko eta segregatuaren kasuan, kultur aniztasunaren kudeaketa burutzeko teknika desberdinak lantzen dira. Eskola publikoan jarduten duen eta elkarrizketatua izan den irakasleak, musika irakasten duen heinean, haren neurrian kudeatzen du kultur aniztasuna; klasean jatorri desberdinetako musikak lantzen ditu adibidez. Horrek, ikasleengan kulturarekiko harrotasuna sortu dezake, ondorioz, haren identitatearekiko sendotasuna handitu, identitate krisi sakonak baztertuz.

“Musika irakaslea naiz beraz nire ikasgaia pixkat berezia da. Parte praktikokoak garrantzi handia du. Musika jotzea, sortzea, dantzatzea...Nire ikasleen jatorritako lurralde askotan musikak pisu handia du, beren egunerokotasunean dago era natural batean beraz, haien kulturekiko harrotasuna ere sortzeko tresna da.” (E-SP)

5.3.Segregazioa

Vitoria-Gasteizeko eskolen errealitateei behatuz, inmigrazio tasa oso desberdinak aurki daitezke. Horrek, ikasle inmigranteen kopurua, zenbait eskoletan pilatua izatea suposatzen du. Elkarrizketatutako irakasleen ikasgelen kasuan, eskola publikoan ikasle etorkinak metatzen dira, eskola itunduan ikasle gutxi dauden bitartean.

“0 ikasle etorkin daude nire gelan.” (E-INS)


“Nire klaseetan ikasle etorkinak dira ia gehienak. Ijitoak ere baditugu. Batzuk Gasteizen jaiok dira baina beste asko geroago etorri ziren, 5, 8 urterekin. Kasuaren arabera. Nire ikasleetako batzuk lurralde ezberdinetan bizi izan dira Gasteizera etorri baino lehen.” (E-SP)

Ikuspegi behatokiak, ikasle etorkinen inguruko txostena garatu zuen 2018.urtean, **La escolarización del alumnado de origen extranjero en el sistema escolar de la CAPV. Diagnóstico y nuevas medidas de intervención** izenburuarekin. Bertan, ikasle etorkinen banaketaren analisisia egiten da, eta ondorengo aipatzen da: *“El sistema escolar de Araba está*

conformado por 109 centros, 76 son parte de la red pública y 33 de la red concertada” (Ikuspegi, 2018, 12.or). Gainera, txostenean bertan, Vitoria-Gasteizeko errealitatea behatu egiten da, eta 61 ikastetxeetatik, 41 publiko direla esaten da, gainerako 20ak itunduak izanik.

Hizkuntza ereduak bestalde, garrantzi handia dute. Ikastetxe publikoko ikasleen %79.3 D eredukoa da, %15 B eredukoa eta %5.7 A eredukoa da. Aldiz, itunpeko ikastetxeetako ikasleen %24.9 D ereduan matrikulatzen da, %64.1 B ereduan eta azkenik, %11 A ereduan. Burutu den grafiko honetan, portzentai hauen analisi grafikoa aurkezten da.

2. Grafikoa . Ikasle etorkinen banaketa



Iturria: Autoreak egindakoa

Ikusi ahal izan denez ondorioz, segregazioa gaur egun agerian dagoen errealitatea da. Hala ere, egoera hobeto ulertzeko, bereizketa honen arrazoiak jo beharko da. Horretarako, elkarrizketatu diren irakasleen iritzia bai eta Maite Fouassier adituaren iritzia kontuan hartu dira.

Alde batetik, irakasle guztiek, sare publiko zein itundukoak, segregazioa existitu egiten dela onartu eta honela arrazoiak egiten dute:

“Gizarteak beldurra dio ezagutzen ez duenari. Beraz, beldur horrengatik fobiak eta gorrotoak agertzen dira. Aipatu beharra daukat egia dela gizarte honetarako ez dela

berdina familia txiro edo aberats bat, biak etorkinak badira ere. Beraz, arrazismoak eta aporafobiak gizartean berrelikatzen direla uste dut". (E-INS)

"Arrasizmoa eta aporofobia. Nire ustez. Dirudun beltz bat ere, beltza izaten jarraitzen du eta askoren begietan konotazio negatibo bat izango du. "Ezberdin" ikusten duguna, beldurra ematen digu. Eta horri empatia falta gehitzen badiogu....". (E-SP)


Ondorioz, irakasleen esanetan aporofobiak zein arrazismoak du eragina gaur egungo egoeran, ikasleen maila sozial eta ekonomikoak garrantzia hartzen baitu. Teoria horiek egiaztatzeko, bestalde, ikastetxe bakoitzeko ikasleen familien diru sarreren inguruan ere galdetu zitzaizen

"Nire ikasleen maila soziala erdi altua dela esango nuke. Horrela banatuko nituzke portzentaiak nire gelan (gutxi gora behera): Maila altua: %25a, Erdiko maila: %50a, Maila baxua: %25a" (E-INS)

"Gure ikasleen familien diru sarrerak txikiak dira. Ezberdinatsunak egongo dira, logikoa den bezala, baina orokorrean hitz eginda, egoera ekonomiko xumea eta zaila dute. Neba-arreba asko dira, batzuk besteetaz arduratzen dira, etxeetan ere duten papera ez da ez etorkinen modukoa. Ez dago zalantzarik. Batzuk ez dute etxean ordenagailurik eta noizbait lanen bat egin behar badute Bidelagun eta hauspoan egiten dute edo patiorenen batean geratzeko eskatzen dute. Nire ikasle batzuk lokutorioetara doaz." (E-SP)

Ikus daitekeenez, kultur desberdintasuna eragina duen faktorea da segregazioan, baina alderdi ekonomikoek garrantzi handia hartzen dute kontu hauetan.

3.Grafikoa. Elkarrizketetan oinarritutako ikasleen maila sozioekonomikoa



Iturria: Autoreak egindakoa

Bestalde, Maite Fouassierrekin elkarrizketa burutzerakoan, Ikuspegi behatokiak burututako txostena eskaini du, Maitek konkretuki idatzitakoa. Txosten horretan, hainbat eskolen errealitatea bildu egiten da, eta horien barne, familia zein ikasleen egoera sozioekonomikoa aztertzen da baliabide ekonomikoen arabera. Horien arabera, litekeena da familiek sare publikoa edo itundua aukeratzea. Zalantzarik gabe, horrek baldintzatzen du eskola-segregazioa, atzerriko familia gehiago baitaude baliabide ekonomiko gutxiarekin, txostenan aipatzen den bezala: : *“Arazo ekonomikoek eragin bera izan dezakete bertoko familietan eta atzerritarrenetan. Egoera hori sare itunduan eta publikoan atzematen da, baina azken horrek uste du, doakoa denez, bere ikastetxeetan baliabide ekonomiko gutxiagoko herritarrak matrikulatzen direla”* (Fouassier, 2017, 27.or).

Ondorioz, ikasle etorkinen matrikulazio tasa askoz altuagoa da sare publikoko ikastetxeetan sare itunduetakoetan baino, nagusiki, arrazoi ekonomikoengatik. Hala ere, txostenean aipatzen denez, arazo ekonomikoak dituzten edozein familiei, hau da, etorkin edo autoktonoak, diru laguntzak eskaintzen zaizkie beharrezko hezkuntza gastuei aurre egiteko.

Horrek, aurreko irakasleek emandako erantzunak egiaztatu egiten ditu, eta egungo egoera jorratu egiten du: ikasle etorkin gehienak sare publikoko eskoletan daude pilatuta.

5.4.Eskola barneko elementuak

Eskola arloaren baitan, 3 alderdi desberdin aztertu egin dira: ikasleak, irakasleak eta familia. Horietan aurkitu diren emaitzak aurkezteko, azpiatal desberdinak planteatu dira.

5.4.1. Ikasleak

Ikasleen atalari begira, gaur egun bai eskolaren inguruan bai eta gizartean zehar honako ideia hedatuta dago: ikasle etorkinek eskola mailaren jaitziera dakarte. Ideia horren inguruan galdetu zaie irakasleei.

Eskola publikoan jarduten duen irakaslea, musika irakaslea den heinean, haren ikasleen gaitasunak egokiak direla azpimarratzen du, batez ere zeregin praktikoetan. Hala ere, haren ikasgaitik kanpo eman daitezkeen gaitasunen inguruan, ez du erantzun konkreturik eskaintzen.

“Samaniegoko ikasleak oso onak dira nire ikasgaian. Behintzat parte praktikoan. Gero ikasteko eta lan egiteko ohiturari dagokionez, hizkuntzari eta halako gauzei dagokienez, bestelako erantzun bat emango nuke agian.” (E-SP)


Bestalde, itunpeko eskolan lan egiten duen irakasleari, galdera berdina eskainiz, haren gelan ikasleek duten ikaskuntza maila altua zela aipatzen du.

“Aipatzekoa da lehen hezkuntzako Igo mailako tutorea naizela. Beraz, oso zaila da ikaskuntza arrakasta neurtzea. Hala ere, “lectoescrituran” eta matematikako oinarrizko helburuak %90ak bereganatu dituztela esango nuke.” (E-INS)

Aipatu beharra dago, ikastetxe publikoari dagokionez, klaseko ikasleen gehiengoa etorkina dela, lehen esan den moduan, eta horrek ikasle etorkinen eta autoktonoen arteko arrakasta konparaketa egitea zaildu egiten duela, hori burutzeko biderik ez dagoelako.

Erantzun horiek frogatzeko, eta teoriatik erantzun praktikoetara salto egiteko, **ISEI-IVEI** informea erabili da. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, EAEko irakas sistemaren ebaluazioan aritzen da, kasu honetan, 2017 kurtsokoa. Informean, DBH 2. eta 4. mailako ikasleen ebaluazioa burutzen da arlo desberdinetan.

4. Grafikoa: Eskola arrakasta, 2018



Iturria: ISEI-IVEI, 2017

4. Grafikoan interpreta daitekeenez, DBH 4. eta 2. mailako ikasle etorkinek eskola arlo desberdinetan bertako ikasleek baino emaitza txarragoak eskuratzen dituzte. Hala ere, txostenean aipatzen denez, ikusgarria da desberdintasuna Gaztelania arloan txikiagoa dela gainontzekoetan baino, ondoren ingeleseko hizkuntza dagoelarik. Gainera, honakoa aipatzen

da; *“bada datu oso positibo bat: bi taldeen arteko puntuazio-aldeak murrizten doaz etengabe”* (Eusko Jaurlaritza, 2018, 67.or).

Arrakasta maila baloratzeko orduan, bestalde, ikasleen adin egokitasuna kontuan hartu behar da, hau da, ikasle bakoitzak duen adinaren arabera egon beharko litzatekeen mailan egotea. Ikasle etorkinen kasuan, arrazoi desberdinak egon daitezke adin egokitasun ezaren atzetik. Hala ere, eskolaratze atzeratuarekin edota hezkuntza desberdinek izan ditzazketen ezaugarriei egokitzerakoan eman daitezkeen aldaketekin erlazionatzen da gehien bat. *“ Ikasle etorkinen kasuan, adinarekiko atzeratuta egotea berandu eskolaratu izanagatik gerta izan daiteke, edo hezkuntza-sistema desberdinen artean egokitzean izandako zailtasunengatik, edo ikasturteren bat errepikatu izanagatik”* (Eusko Jaurlaritza, 2018, 69.or).

Isei-Ivei txostenean eskuragarri dauden datuen arabera, bestalde, ikasle etorkinen eta bertakoen arteko adin egokitasunen aldea murrizten doa urteekin bat. Datuei erreparatuz, 2017. urtean, DBH 4.mailako ikasle etorkinen %79 eta bertako ikasleen %94.4 adin egokitasunean zeuden, haien arteko desberdintasuna, 15.4 puntuetan kokatuz. Aldiz, 2015. urtean, ikasle etorkinen eta bertakoen arteko adin egokitasunaren desberdintasuna, 17.1 puntura ailegatzen zen. (Eusko Jaurlaritza, 2018).

ISEK, hau da, indize sozioekonomiko eta kulturalari behatuz, txosten berean, Lehen hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen analisia egiten da. Horretan ikus daitekeenez, *“Hamar ikasle etorkinetatik zazpi baino gehiago daude ISEK maila baxuan, bi etapetan. ISEK maila altuan, ikasle etorkinen % 3 inguru bakarrik daude, bertako ikasleen kasuan baino bederatzi aldiz gutxiago”* (Eusko Jaurlaritza, 2018,68.or).

Ondorioz, ikasle etorkinen eta bertakoen arteko maila desberdintasuna nabaria da etapa orotan. Hala ere, urteekin batera, desberdintasun horiek gutxituz doaz indize publikoen arteko desberdintasunak murriztearekin bat. Gainera, irakasgai gehienetan desberdintasuna handia da ikasleen artean, baina Euskara ez den hizkuntzetan desberdintasun hori txikiagotu egiten da.

5.4.2. Irakasleak

Pigmalion efektuaren arabera (Aginako, 2017), irakasleek haiengan kokatzen den konfidantzaren araberrako lorpenak eskuratzen dituzte. Ondorioz, irakasleek zein esperantza

duten kokatuta haien ikasleengan oso puntu garrantzitsua da. Horren inguruko emaitzak eskuratzeko, elkarrizketatutako irakasleei honen inguruko galderak egin zaizkie.

Sare publikoko irakasleak, Pigmalion efektuaren teoriarekin bat dator, eta gainontzekoen espektatiben funtsezko papera azpimarratzen du norbanakoek lorpenen inguruan aritzeko.

“Azkenean ez ditugu besteen espektatiben aurrean horiek betetzen saiatzen?Efeito pigmalion deiturikoa. Edo hala ikusten dut nik behintzat. Inork ez badu espero zuk hau edo bestea egitea, hau edo bestea ikastea, lortzea...zuk ez duzu egingo. Agian pentsamendu hori edo aukera hori ez da zure burutik ere pasatuko. Bestalde, zure inguruko pertsona guztien egoera, joera eta bidea antzekoa bada, zerk egingo dizu joera hori guztiz aldatzea? Ez da erraza.” (E-SP)

Bestalde, sare itunduko irakasleak, hezkutza sistemaren baitan dauden ume guztiekiko kokatzen den esperantza tasaren inguruan aritzen da, espektatiben garrantzia azpimarratuz.

“Normalean arrakasta ume guztiengan espero da. Beraz, espero ez dena porrota da. Horretarako, umearen garapen integrala bermatu behar da, ikaskuntza arrakasta ez baitelako nota onak ateratzea.” (E-INS)

Irakasleen papera ondorioz, funtsezko elementua da ikasleek arrakasta eskuratzeko orduan, bai akademikoa bai eta pertsonala. Horretarako, haiengan konfidantza kokatu behar da. Baina irakasleen esanetan, gizarteak ez du konfidantza berdina kokatzen du ikasle etorkinengan. Horrek, ikasle hauekiko itxura distortzionatua sortzea eragiten du, eta gizarte banaketara bai eta bazterketa sozialera eramaten ditu. Izan ere, ikasleek ez dute soilik irakasleen konfidantza behar hiritar bihurtzeko, baizik eta gizarte osoarena.

Irakasleei, bestalde, hainbat baliabide desberdin eskaintzen zaizkie haien gelako funtzionamendua zihurtatzeko. Hala ere, gida horietan askotan ez zaie ikasle etorkinei erreferentzia egiten, eta irakasleei ez zaizkie aniztasunari erantzuteko baliabide nahikoak eskaintzen. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak, 2017.urtean, Euskal Hezkuntza sisteman integratu berriak ziren irakasleentzat hezkuntza gida prestatu zuen, non puntu desberdin ugari xedatzen ziren, metodologia, ebaluazioak... besteak beste. Bertan ez da erreferentziarik egiten aniztasunaren trataeraren inguruan.

Formakuntza eza honen inguruan galdetu zaie elkarrizketatutako irakasleei bestalde, eta haietatik batek ere ez du gai honen inguruko formakuntzarik jaso.

Maite Fouassierrek, haren aldetik, gela bakoitzean eman daitekeen aniztasun maila handia azpimarratu, eta administrazioen lan eskasa aipatzen du, egoerari aurre egiteko neurri espontaneoak defendatuz.

“Egia da, irakasleek haien ikasgeletan aurkitzen dituzten errealitate desberdinek askotan, administrazioek hartutako neurriak eskasak izatea suposatzen duela, ondorioz, ikastetxeek ahal izan duten moduan moldatzera beharuz.” (E-PA)

Instituzio eta administrazioek aniztasunaren inguruko lanketa eza izateak, irakasleengan ardura handiagoa kokatzen du, aniztasun horri erantzuna ematerako orduan, bai eta ikasleek izan ditzaketen beharrak asetzeko.

Ikuspegi behatokiak argitaratutako txostenean, egoera definitzeko irakasle desberdinei galdera desberdinak egiten zaizkie. Bertan elkarrizketatuek aipatzen dutenez, neurri konkretuak martxan jartzeko ezintasuna badago, utopiari lotuta baitaudelako; *“Aniztasuna eta banakako arreta tratatzea hitz politikak dira, baina ez dira errealistak. Ezinezkoa da egitea, utopia da; izan ere, politikoki oso ongi geratzen da, diskurtsorako, baina, oinarrian, gauza batzuk ezin dira egin” (Fouassier, 2017, 20.or).*

Amaitzeko, elkarrizketatutako irakasleei aldaketarik beharrezko ikusten duten galdetu zaie, haien proposamenak luzatzeko espazioa eskainiz.

Eskola publikoko irakasleak, Eusko Jaurlaritzari zuzenean egiten dio erreferentzia, segregazioa alde batera uzteko proposamena luzatuz.

“Nire proposamena Eusko Jaurlaritzak hau kontuan hartzea eta bereizketak ez egitea. Ez egotea hiru Ikastetxe publiko mota: Lehenengoa, Ikastetxe publiko (euskaldun petopetoak) bigarrena, ikastetxe publiko (normalak edo sin más) eta hirugarrena, ikasle publiko (guettoak). Etiketatzeko modu ironikoa erabili dut, baina uste dut ulertu daitekeela nondik noan. Nahastuta eta elkarrekin egon beharko lirateke denak. Guztiak dira “gureak” eta legeak dionaren arabera, guztiek dituzte hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntza hori bidezkoa izateko eskubidea.” (E-SP)

5.4.3. Familiak

Familia eta eskola arteko harremana berebiziko garrantzia duen elementua da. Honen inguruko informazioa jasotzeko, elkarrizketatutako irakasleei gai honekin erlazionatutako galderak egin zaizkie, modu horretan, familia etorkin eta autoktonoek zer nolako eskolarekiko harremana duten baloratzeko.

Alde batetik, eskola publikoko irakasleak, haren gelaren baitan harreman desberdinak daudela aipatzen du, orokortzeak alde batera uzteko nahiaz. Hala ere, haren gelako gurasoen portzentai oso altua ez dago haien umeen ikasketaz oso pendiente. Gainera, bestelako egitekoak edota kezka familia hauen artean oso ohikoak direla azpimarratzen du.

“Kasu askotan gauza larriagoak dauzkate eskuartean eta bilera batera joatea ez da beti lehentasuna. Beste alde batetik, irakasleon hitza errespetatzen dute, ez dute zalantzan jartzen eta hori, gure gaur egungo gizartean, batzuetan ere lagungarri da”(E-SP).

Eskola itunduko irakasleak aldiz, gurasoekin oso harreman egokia duela esaten du, gehienek partaidentza aktiboa dutela azpimarratuz.

Ikus daitekeenez, guraso etorkin eta autoktonoen arteko harremanen desberdintasuna nabaria da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, **Familia etorkinen eta eskolen arteko harremanetarako Jardunbide Egokien Gidaliburua** sortu zuen 2010. urtean. Bertan, familien parte hartzea bultzateko jarduerak, baldintzak, moduak... aipatu egiten dira, familia eta eskolaren arteko erlazio estuagoa sortzeko asmoz, arazoa ekidituz, eta egoeraren berri izanik. Gainera, eskola- familia arteko erlazio eskasaren bai eta familien ezagutza faltaren sustraietara jo, eta oztopo izan daitezkeen ezaugarriak aipatu egiten dira: *“Hizkuntza- edo kultura-oztopoak, antsietate-sentimendua edota segurtasun-gabeziako sentimendua, mezu negatibo sistematikoak, familiek izandako eskola-esperientzia negatiboak, gutxiengoei ez entzutea —familiak—, gutxiengoek eraginik ez izatea, eta abar”* (Eusko Jaurlaritza, 2010, 8.or).

5.5.Egoera errealer hurbilduz

Behin, elkarrizketak eta informazio iturri desberdinen analisia burutu eta erlazionatu direla, irakasleei, haien egoeraren definizioa aipatzeko aukera eman zaie amaiera puntu erreal eta eguneratua eskaintzeko.

Eskola publikoko irakasleak gizartean ematen diren ekintzetara jo du egoeraren diagnostiko laburra eskainiz.

“Albo batera utzi nahi ditugun “hauek” pertsona zoragarriak dira eta mentalidade horrekin jarraituz gero ez ditugu inoiz ezagutuko. Ondorioa penagarria da. Hutsune ikusezin baina sakon bat eramango duzu beti soinean”. Bestalde, ikastetxe itunduko irakasleak honela definitu zuen haren klaseko egoera: “Gizartearen errealitatetik aldentzen den egoera.” (E-SP)

Geroz eta migrazio fluxu handiagoa duen gizartea da gurea. Zehazki, Maite Fouassierrek aipatzen duenez, migrazio-fluxuak ez dira geldituko, iraunkorrak eta egiturazkoak direlako. Horrek, diseinatzen den ekintza edo politika orok errealitate hori kontuan hartzeko beharra dagoela suposatzen du egokiak izateko.

“Ukaezina dena, migrazioa errealitate estrukturala dela da. Geratzeko etorria da, eta ondorioz, lankidetzaren bultzatza bideratutako lan orok, fenomeno hau kontuan izan beharko du. Migrazio mugimenduen azkenengo 20 urteetako eboluzioek argi erakusten dute, nahiz eta krisi ekonomikoa egon, migrazioak ez direla desagertu, baizik eta moldatu egoera sozioekonomikoari, herrialde zehatz batzuetako iritsierak motelduz” (E-PA)

Honek, errealitatea ikustarazten digu, eta itunpeko eskolako irakasleak aipatzen duenez, kontzentrazio baxuko edo ezako ikastetxeak ez dute gizartearen islada sortzen, baizik eta migrazioarekiko errefuxa. Jarrera horrek, lehen aipatu den bezala, hiritar migranteenganako jarrera txarrak edo esperantza baxua sorrarazten du, bazterketa soziala delakoa sortuz.

6.Ondorioak

Behin GRAL honetan zehar erabilitako iturri zein elkarrizketen analisia burutu dela, hauetatik ateratako ondorioak aurkeztuko dira atal honetan. Horretarako gainera, burututako hainbat hipotesi desberdin agertuko dira, egoeraren analisia laburtzeko asmoz.

- 1. Ondorioa: Segregazioa exititu egiten da

Segregazioa ikusgarri dago eskola askotan, batzuetan ikasle inmigranteen pilaketa ematen delarik eta beste batzuetan ikasle etorkin bat ere ez dagoelarik. Horrek, errelaitate bat dela onartzeko beharra agerian jartzen du, hartatik abiatuz arazoa eta egoera konpontzeko moduak eraikitzeko.

- 2.Ondorioa: Ez dira ikasle etorkinen beharrak asetzen

Ikasle atzerritarren hezkuntza lorpenen behaketa burutzerakoan, ikusi ahal izan denez, ikasle autokntonoek baino maila baxuagoa eskuratzen dute orokorrean. Ikasle etorkin askok hizkuntzarekin arazoak aurkezten dituzte, edota bestelako ikasgaietan, posible denez, haien herrialdeetan lanketa metodo desberdinak ematen direlako eta hizkuntza desberdinetan.

Ikaskuntza prozesua arlo guzti horietan zentratu egiten den heinean, ikasle hauek izan ditzaketen beharrak alde batera uzten dira, eta curriculumak bai eta eskola egutegiak zehazten dituen langaietan zentratu egiten da.

Egoera honi aurre egiteko, ikasleen egoera ezagutzeko beharra izango du irakasleak, haren ezaugarriak eta egoera behatuz, horiei egokitzeko aukera izateko eta hezkuntza prozesua ikasleen egoeraren arabera moldatzeko. Gainera, ebaluagarri bihurtu beharko dira bestelako gaitasun asko, eta ebaluazio metodo klasikoa alde batera utzi beharko da. Hau burutu ahal izateko dena den, hezkuntza organoen malgutasunaren beharra aurkitu egingo da, askotan irakasleei inposatzen zaizkien irizpideak alde batera utziz.

- 3. Ondorioa: Aniztasunak onurak dakartza

Aniztasuna ikaskuntza tresna gisa ulertzen hasi beharko da, alde batera uztiz haren kontrako ideia oro. Gainera, kultur aniztasunak ekartzen dituen onurak ikusgarri bihurtzea proposatuko nuke, modu horretan gizartearen erantzun positiboa eskuratzeko.

Klasean bertan, kultur aniztasunari tarte bat eskaintzea onuragarria izango litzateke gainera, haur bakoitza haren kulturarekin identifikatua sentitzeko bideak eraikitze eta harrotasun sentimendua sorrarazteko. Bide horretatik, ikasleek haien kultura mantentzeko ahaleginak burutuko dituzte, klase anitza sortuz eta hegemonia kulturala baztertuz.

- 4. Ondorioa: Idealak errealitate bihurtzeko unea da

Aldaketen inguruan hitz egiterakoan, ikasle zein pertsona orok, oso zaila den prozesua dela aipatzen dute, dena oso idealista dela esanez. Hala ere, aldaketak burutzeko idealismotik errealitatera pausuak ematea berebizikoa izango da, mugarik gabeko lana burutuz. Horretarako, irakasleengan gizarte konfidantza ezarri beharko litzateke, modu horretan era askean jarduteko aukera izateko.

- 5. Ondorioa: Irakasleek formakuntza gutxi jasotzen dute

Irakasleei kultur aniztasunaren trataeraren inguruko formakuntzaren inguruan galdetzerakoan, formakuntzarik jaso ez dutela aipatzen dute. Hori dela eta, irakasleei formakuntza ugariagoa eskaintzea oso garrantzitsua iruditzen zait egoeraren kudeaketa egokia burutu dezaten.

- 6. Ondorioa: Eskola eta familia etorkinen arteko harremana indartzeko pausuak eman behar dira.

Familia etorkinek eskolarekin erlazio gutxiago dute familia autoktonoek baino. Erlazio horiek berdintzeko, eskolak harreman sendoa eraikitzen lan egin beharko du, konfidantza giro segurua eskainiz. Giro hori sortzeko, familia bakoitzarekin komunikazioa indartu beharko litzateke, haien egoeraren inguruko interesa nabaritu dezaten, eta ikasleek haien haurrengan duten esperantza nabaritu dezaten. Gainera,

oso garrantzitsua iruditzen zait, kultura askok irakaslearen inguruan duten irudi autoritarioa desagitea, eta laguntzaile rola erakustea.

- 7. Ondorioa: Proposamen formala luzatzeko beharra

Elkarrizketatutako pertsonak azaleratu dutenez, administrazioek ez dute kultur aniztasunaren trataera egokia bultzatzeko baliabiderik eskaintzen ez eta ikasle etorkinen banaketa egokia burutzeko ahaleginik egiten. Hori dela eta, ikastetxe bakoitzak haren egoeraren inguruko informeez baliatuz, Eusko Jaurlaritzari proposamen egokituak luzatzea oso gomendagarria iruditzen zait, administrazioek burutu dituzten txosten askok ez dituztelako errealitate anitzak kontuan hartzen.

7. Proposamena

Azterketa egin eta emaitzak aurkeztu eta gero, Vitoria- Gasteiz hirian eman den eskola segregazioa ageriko errealitatea dela ikusi ahal izan da. Horri aurre egiteko asmoz, Vitoria-Gasteizeko udalak Magnet Proiektua izeneko jarri zuen martxan Barrutia eta Angel Ganivet eskoletan. Magnet proiektua, Estatu Batuetako Magnet Schools proiektutik eratorritakoa da, non segregazioarekin amaitzeko, jatorri, maila sozioekonomiko eta maila akademiko desberdinetako haurrak eskola berdinetan doanik matrikulatzeko aukera duten (Magnet Schools, data ezezaguna). Vitoria- Gasteizeko udalak proiektua 2019. urtean jarri zuen martxan, baina eskola segregatu askok proiektu horri ezezkoa eman zioten, haurren beharrak eta egoerak alde batera uzten zirela esanez. Hori dela eta, GRAL honen atal honetan, eskola segregatu guztietara egokitzea bideratuta dagoen proposamena luzatuko da, non beharrak eta ezaugarriak funtsezko elementuak izango diren.

Lehenik eta behin, matrikulazio tasetan aldaketak ematea proposatzen da. Horretarako, ikastetxe guztiek, bai publiko bai eta itunduek ere, matrikulazio aldi berdinak izatea plantetzen da. Modu horretan, ikasle migranteak eskoletara ailegatzeko direnean, eskola aukeratzeko hautabide gehiago izango dituzte.

Bestalde, egoeraren inguruko informazio sakona eta fidagarria eskuratzeko asmoz, bai eta irakasleen testigutzak lehen mailako informazioaren bidez lortzeko, ikastetxe segregatuetako irakasleen batzarra sortzea proposatzen da. Modu horretan, eskola mota hauek partaideen eta administrazioen arteko erlazio zuzena sortuko da analisi erreala burutzeko aukerak sortuz.

Hirugarren azpiproposamena, itunpeko eskolei zuzendutakoa da. Eskola hauen baitan kontrolak ezarri nahi dira, hauek izan beharreko matrikulazio anitzak betetzen direla ziurtatzeko, hau da, gobernutik esleitzen zaizkien arazo sozioekonomiko eta ikasle migranteen tasak betetzen direla ziurtatzeko. Hauek bete ezean, hori egin dezaten eskaintzen zaizkien kontzertu ekonomikoaren deusestapena egitea proposatzen da.

Eskola segregatuen maila akademikoari erreparatuz, ebaluazio formalak alde batera uztea proposatzen da, ikasleen beharretara egokitzen diren gaitasunak lantzean zentratzeko, eta horretarako metodologi berritzaileak erabiltzeko aukerak izateko. Metodologi berritzaile horiek erabiltzearekin bat, familia autoktonoen erakartzea suposatuko duela uste da, modu

horretan, segregazio tasak orekatuz. Bestalde, metodologi horien artean, eskolak berak sustatutako baliabideak erabiltzea oso komenigarria izan daiteke, hala nola, baraztetako produktuak.

Orekatze horiek ziurtatzeko gainera, ikasle etorkinen banaketa kontrolatzea proposatzen da, era berdintsuan egiteko. Horiek kontrolatzeko bestalde, BOEn zehazten diren baremazio puntuen berrikusketa beharrezkoa izango da. Begirapuntuan jarriko dira erroldatze faltsuak eta horien kontrol estuak egingo dira, eta eskola bakoitzak sortu dezakeen baremazio puntua ezin izango da maila ekonomikoan oinarrituta egon ez eta familia egituran.

Ikasleen garapen akademiko eta pertsonala ziurtatzeko, segregatuta dauden eskoletan, irakasle taldearen egonkortze plana egitea proposatzen da. Horren bidez, irakasle eta ikasleen arteko erlazio estuagoa sortuko da, eta ikasleek dituzten beharrak hobeto ezagutuko dira. Gainera, azpiproposamen honen bidez, eskola hauetan, epe laburrerako diren ordezkapenak alde batera utziko dira, ikasleen egoeraren inguruko desinformazioa gutxiagotzeko asmoz.

Haur Hezkuntzako etapan, proposamen metodologiko erakargarriak erabiltzea ere proposatzen da, hala nola, zirkulazio librea, autonomia erreforatzeko metodologiak, Pickler materialak erabiltzen dituenak; metodologi naturalista animalia zein hortuak erabiliz... Modu horretan, familia autoktonoen arreta deitzea bilatuko da, orekatzeak sustatuz.

Bestalde, haurrak geletan banatzen diren momentutik hasita, Euskara eredia ezartzea proposatzen da, Haur Hezkuntzatik. Nabaria da, familia autoktono ugari, haien haurren eskola Euskara mailaren arabera bilatzen dutela. Eskola segregatuetan Euskara maila orekatua biltzen da azpiproposamen honekin. Gainera, gaur egungo euskal eskola eredian dauden ikasle etorkin gehienak, bigarren belaunaldiko haurrak dira, eta ondorioz, bertan jaiotakoak. Banaketa burutzearkoan, ikasle etorri berri bat sartzeko bada gelara, gainerako ikasleen Euskara mailarekin, maila orekatua eskuratzeko gaitasun handiagoak izango ditu.

Gurasoen egoera aldatzeko asmoz, eskolaren baitan haien beharrentzat bideratutako ekintzak edota tailerrak antolatzea proposatzen da. Horien bidez, familiak hobeto ezagutu ahal izango dira, eta eskola eta familien arteko erlazioa estutu ahal izango da, segurtasun giroa sortuz. Gainera, parte hartzea hobetzera zuzendutako ekintzak ere egitea proposatzen da, hau da, familiak, haurrak eta eskola haren baitan hartzen dituzten ekintzak. Bestalde, familia

autoktono eta atzerritarren arteko erlazioa sendotzeko, eskola topaketak antolatu ditzake, haien arteko komunikazioa bultzatzeko eta sortu edo egon daitezkeen aurreiritziak apurtzeko.

Azkenik, segregazioarekin sustraietatik amaitzeko, eskola fusioak egitea proposatzen da. Haur da, segregazioa jasaten duen eskola bat, segregaziorik ez duen batekin fusionatuko da, eta modu horretan, Vitoria-Gasteizeko eskola publikoak binaka fusionatuko dira. Haur baten familiak haurra eskola batean apuntatzekoan, automatikoki zozketa baten barne sartuko da, fusionatutako eskolen zozketa batean zehazki.

8. Bibliografia

- Aguado, T., & Del Olmo, M. (2009). *Educación intercultural. Perspectivas y propuestas* (1-179.or). Madrid: Centro de estudios Ramon Arecés, S.A.
- Aierdi, X. (23 de 08 de 2006). *Euskadi.eus*. 2020ko 03aren 15 ean berreskuratua, https://www.euskadi.eus/web01-a2inguru/eu/contenidos/informacion/artik9_1_integrazioa_06_07/eu_integraz/artik9_1_integrazioa_06_07.html -tik.
- Aierdi, X. (2012). *Atzerriko biztanleak*. E. E. Erakundea, *Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoan* (47-86 or). Vitoria-Gasteiz: Euskal Estatistika Erakundea .
- America, M. S. (s.f.). *magnet.edu*. 2020ko 05aren 25ean berreskuratua <https://magnet.edu/about/what-are-magnet-schools> - tik.
- Bake eskola. (s.f.). *Bake Eskola Gasteiz*. 2020ko 03aren 16an berreskuratua <https://bakeeskolagasteiz.wordpress.com/> -tik
- Barquin, A. (2018ko 11aren 11a). Eskola segregazioa, bidegurutzean. *Berria*.
- Berdonces, J. (2018ko 1aren 4a). «Vitoria atrae población porque es una ciudad que ofrece oportunidades». *El Correo*.
- Canales, A. (2013). Migración y desarrollo en las sociedades avanzadas. *Polis Revista Latinoamericana* (1-35.or).
- Etxeberria, F., Garmendia, J., Murua, H., & Arrieta, E. (2018). Acogida del alumnado inmigrante recién llegado en la escuela inclusiva. El caso de Cataluña, País Vasco y Francia 27.zenbakia (93-119.or). *Revista de Educación Social*
- Euskal Estatistika Erakundea. (2019). *Eustat*. 2020ko 04aren 5ean berreskuratua https://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/vitoria_gasteiz_c.html -tik.

- Eusko Jaurlaritzak. (2007). *Euskal Hezkuntza sistemaren Antolamendua eta Ezaugarriak* (5-31.or). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzak. (2017). *Guía para docentes que se incorporan al sistema educativo vasco* (1-50.or).
- Eusko Jaurlaritzak. (2018). *La escolarización del alumnado de origen extranjero en el sistema escolar de la CAPV. Diagnóstico y nuevas medidas de intervención* (1-101.or). Eusko Jaurlaritzak.
- Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza Saila. (2016). *II Plan de atención educativa al alumnado inmigrante en el marco de la escuela inclusiva e intercultural 2016-2020* (1-60.or). Eusko Jaurlaritzak.
- Fouassier Zamalloa, M. (2017). *Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak* (1-126.or). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Gatón, N. (2018ko 12aren 12a). Álava tiene menos población de nacionalidad extranjera que la media española. *Gasteiz Hoy*.
- Gil Araújo, S., Atienza Azcona, J., Herrera, G., Malgesini, G., Nyberg Sørensen, N., Van Hear, N., eta bestelakoak. (2005). *La migración un camino entre el desarrollo y la cooperación* (4-177.or) Madrid: Centro de Investigación para la Paz.
- Guerrero Ocejó, B. (2018ko 07a). *Edcities.org*. 2020ko 04aren 06an berreskuratua <https://www.edcities.org/rece/wp-content/uploads/sites/3/2018/07/Blanca-Guerrero-Ocejó.pdf> - tik.
- Hernández Prados, M. (2017). *EDUCACIÓN PARA LA VIDA CIUDADANA EN UNA SOCIEDAD PLURAL* (19-139.or) . Murcia: Ediciones de la Universidad de Murcia.

- Hezkuntza, H. P. (s.f.). *Hamaika Esku* (1-8.or). Eusko Jaurlaritza.
- Ikuspegi. (2019). *Población de origen extranjero en la CAE 2019*.
- Ikuspegi. (2020). *Ikuspegi.eus*. 2020ko 02aren 20an berreskuratua
<https://www.ikuspegi.eus/es/estadisticas/estadisticas.php> - tik.
- Imaz, M., & Artetxe, M. (2004). Etorkinen integrazioa ikastoletan. *BAT aldizkaria*.
- ISEI-IVEI. (2018). *Ebaluazio Diagnostikoa 2017 Txosten exekutiboa* (11-117.or).
 ISEI-IVEI.
- Jaurlaritza, E. (2016). *LA EDUCACIÓN EN EUSKADI. Informe 2013-2015*
 (10-203.or). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu
 Nagusia.
- Jaurlaritza, E. (2018). *Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman*.
Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak (1-94.or). Eusko Jaurlaritza.
- Jaurlaritza, H. S. (2018). *Euskadi.eus*. 2020ko 02aren 15ean berreskuratua
<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-inklusiboa-aniztasunaren-trataera/web01-a3hinklu/eu/> - tik.
- Magazine, R. V. (2019ko 07aren 11a). El Proyecto Magnet llega a Álava para frenar la segregación escolar. *Eitb*.
- Mendizabal, E. (2009). *Etorkinak eta esplotazioa. Kulturantzatasuna eta integrazioa*
 (7-84.or). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Ministerio de Educación. (2009). *Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostena*
 (8-51.or). Secretaría General Técnica.
- Motoso, P. (2010). *Familia etorkinen eta eskolen arteko harremanetarako Jardunbide*
Egokien Gidaliburua (3-40.or). Vitoria-Gasteiz: Euskal Autonomia
 Erkidegoko Administrazioa.

- Ortega, I., Eguskiza, J., & Ruiz de Garibay, M. (2004). *Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak* (6-62.or). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Peiró i Grègory, S., & Merma Molina, G. (2012). LA INTERCULTURALIDAD EN LA EDUCACIÓN. SITUACIÓN Y FUNDAMENTOS DE LA EDUCACIÓN INTERCULTURAL BASADA EN VALORES (13: 127-139.or). *Bartaria. Revista Castellano-Manchega de Ciencias sociales*.
- Pereda, R. (2019ko 06aren 30a). La segregación amenaza con romper la escuela pública vasca. *eldiarionorte.es*.
- Saila, H. (2018ko 05aren 8a). *Euskadi.eus*. 2020ko 03aren 14ean berreskuratua <https://www.euskadi.eus/noticia/2018/impulso-al-proyecto-hauspoa-jornada-d-e-trabajo-dirigida-a-todos-los-centros-de-secundaria-interesados-a-sumarse-a-l-a-iniciativa/web01-s2hhome/es/> - tik.
- Saila, H. (2019). *Resolución de 2 de marzo de la viceconsejera de educación por la que se aprueban las instituciones dirigidas a los centros públicos dependientes del Departamento de Educación para la petición de la solicitud de la realización durante el curso 2020-2021* (1-10.or). Eusko Jaurlaritza.
- Saila, H. (2020). *RESOLUCIÓN de 17 de abril de 2020, de la Viceconsejera de Educación, por la que se convoca a los centros públicos de Educación Secundaria dependientes del Departamento de Educación a participar en el proyecto de innovación de la organización interna* (1-16.or). Eusko Jaurlaritza.
- Septién Ortiz, J. (2006). *MUGARIK GABEKO ESKOLA. Ikasle etorkinen irakaskuntza Araban* (1-228.or). Vitoria-Gasteiz: ARARTEKO.
- Terrón Malagón, J., & Robles Bohórquez, E. (2010). *unescoetxea.org*. 2020ko 05aren 14ean berreskuratua

http://www.unescoetxea.org/ext/manual_EDS/pdf/09_diversidad_euskera.pdf

- tik.

9. Eranskinak

9.1 BOE eskolen esleipena egiteko barometroa

a) Renta anual de la unidad familiar (conceptos acumulables hasta la puntuación máxima del apartado)

– Si la suma de la base imponible general y la base imponible del ahorro de la Declaración de la Renta del año 2018 no supera los 10.302,60 euros: 0,5 puntos.

– Si la suma de la base imponible general y la base imponible del ahorro de la Declaración de la Renta del año 2018 supera esta cantidad: 0 puntos.

– Además, en los supuestos anteriores, se sumarán 0,25 puntos por cada hijo o hija menor de edad distinto del o de la solicitante. – Puntuación máxima de este apartado: 1,5 puntos.

b) Proximidad del domicilio (conceptos no acumulables).

– Domicilio del alumno o alumna en el área de influencia del centro solicitado: 5 puntos.

– Domicilio del alumno o alumna en área de influencia limítrofe a la del centro solicitado: 2 puntos.

– Domicilio del alumno o alumna en el municipio en el que se encuentre ubicado el centro, pero fuera de las áreas de influencia y limítrofes: 1 punto.

– Domicilio del alumno o alumna en la Comunidad Autónoma del País Vasco, pero fuera de las zonas de influencia y limítrofes y del municipio en el que se encuentre ubicado el centro: 0,5 puntos.

– Lugar de trabajo del padre, madre, tutor o tutora legal del alumno o alumna en el área de influencia del centro solicitado: 2 puntos (esta puntuación es incompatible con la que se otorga por el hecho de que el padre, madre, tutor o tutora legal del alumno o alumna trabaje en el centro solicitado o en un centro adscrito).

– Puntuación máxima de este apartado: 5 puntos.

c) Existencia de familiares que estudian o trabajan en el centro (conceptos no acumulables).

– Uno o más hermanas o hermanos matriculados en el centro solicitado o en un centro adscrito: 9 puntos.

– El padre, madre, tutor o tutora legal trabaja en el centro solicitado o en un centro adscrito: 7 puntos (esta puntuación es incompatible con la que se otorga por el hecho de que el padre,

madre, tutor o tutora legal del alumno o alumna trabaje en el área de influencia del centro solicitado).

– Puntuación máxima de este apartado: 9 puntos.

d) Pertenencia a familia numerosa.

– Por pertenecer a una familia numerosa de categoría general: 1 punto.

– Por pertenecer a una familia numerosa de categoría especial: 1,5 puntos. N.º 10 jueves 16 de enero de 2020 BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO 2020/173 (23/23)

e) Situación de acogimiento familiar.

– Por situación de acogimiento familiar del alumno o alumna solicitante: 1 punto.

f) Discapacidad (puntuación máxima por este concepto: 2 puntos):

– Del alumno o alumna solicitante: 2 puntos.

– De su padre o de su madre o de su tutor o tutora legal o de alguno de sus hermanos o hermanas: 1 punto.

g) Condición de socio o socia cooperativista.

– Por condición de socio o socia cooperativista del centro solicitado de alguno de los miembros de la unidad familiar: 0,5 puntos

h) Otras circunstancias relevantes apreciadas por el Órgano Máximo de Representación o Consejo Escolar del centro.

– Por criterios determinados por el Consejo Escolar u Órgano Máximo de Representación del centro, que podrán ser también alguno o algunos de los expresados anteriormente, establecidos de acuerdo con criterios públicos, objetivos y no discriminatorios por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social: hasta 1 punto (los criterios deberán ser hechos públicos y comunicados al correspondiente Delegado o Delegada Territorial de Educación con anterioridad al comienzo del plazo de presentación de solicitudes).

9.2. Elkarrizketak

9.2.1. Ikastetxe publikoko irakasleari egindako elkarrizketa

- *Zure klasean zein da ikasle etorkinen portzentaia?*

Nire klaseetan ikasle etorkinak dira ia gehienak. Ijitoak ere baditugu.

- *Horietako zeintzuk dira Gasteizen jaiok?*

Ezingo nuke ziurtasunez erantzun. Batzuk Gasteizen jaiok dira baina beste asko geroago etorri ziren, 5, 8 urterekin. Kasuaren arabera. Nire ikasleetako batzuk lurralde ezberdinetan bizi izan dira Gasteizera etorri baino lehen.

- *Zer nolako arrakasta lortzen dute zure gelan lantzen diren ikasgaietan?*

Musika irakaslea naiz beraz nire ikasgaia pixkat bereziada. Parte praktikoak garrantzi handia du. Musika jotzea, sortzea, dantzatzea...Nire ikasleen jatorritako lurralde askotan musikak pisu handia du, beren egunerokotasunean dago era natural batean beraz...Samaniegoko ikasleak oso onak dira nire ikasgaian. Behintzat parte praktikoan. Gero ikasteko eta lan egiteko ohiturari dagokionez, hizkuntzari eta halako gauzei dagokienez, bestelako erantzun bat emango nuke agian.

- *Beste ikaslek lortzen dutenaren desberdina ondorioz?*

Uste dut galdera honen helburua ikasle etorkinen eta ez etorkinen nolabaiteko komparaketa egitea da ez? (Ez dakit ondo ulertu dudana) Hala bada, lehen esan dudana bezala, nire ikasle ia ia guztiak guztiak ez esateagatik etorkinak dira beraz, ez dago beraien artean zentzu horretan komparatzeko modurik.

- *Zer nolako diru sarrerak dituzte ikasle horiek?*

Gure ikasleen familien diru sarrerak txikiak dira. Ezberdinatsunak egongo dira, logikoa den bezala, baina orokorrean hitz eginda, egoera ekonomiko xumea eta zaila dute. Neba-arreba asko dira, batzuk besteetaz arduratzen dira, etxeetan ere duten papera ez da ez etorkinen modukoa. Ez dago zalantzarik. Batzuk ez dute etxean ordenagailurik eta noizbait lanen bat egin behar badute Bidelagun eta hauspoan egiten dute edo patiorenean batean geratzeko eskatzen dute. Nire ikasle batzuk lokutorioetara doaz.

- *Haiengan kokatzen den arrakasta esperantza besteengan jartzen denaren berdina da gizartearen aldetik?*

Ez dakit zenolako arrakasta esperantza jartzen duen gizarteak haiengan. Agian ikuspuntu negatiboa da nirea, baina nire ustez, arrakasta esperantza bat edo bestea izateko, haiengan erreparatu behar da lehendabizi. Eta gizarteko eta hiriko jende asko eta askorentzat, gure ikasleak ez dira parte, edo ez dituzte kontuan hartzen.

- *Horrek eragina dauka?*

Bai. Noski eragina duela. Azkenean ez ditugu besteen espektatiben aurrean horiek betetzen saiatzen?Efekto pigmalion deiturikoa. Edo hala ikusten dut nik behintzat. Inork ez badu espero zuk hau edo bestea egitea, hau edo bestea ikastea, lortzea...zuk ez duzu egingo. Agian pentsamendu hori edo aukera hori ez da zure burutik ere pasatuko. Bestalde, zure inguruko pertsona guztien egoera, joera eta bidea antzekoa bada, zerk egingo dizu joera hori guztiz aldatzea? Ez da erraza.

- *Esklusio sozialera bideratzen ditu jarrera horiek?*

Esklusio sozial terminoa oso gogorra da baina...izan daiteke. Bai. Batez ere guztiak baldin badaude zentro bakar batzuetan pilatuta. Pixkanaka, buruak ireki eta gauzak beste modu batean egiten hasiko garela pentsatzea gustatuko litzaidake. Auskalo!

- *Zure ustez, zein da ikastolak hain etorkin portzentai altua izatearen arrazoia?*

Ez dakit galdera hau ondo erantzungo dudan...egia da Samaniegok beti izan duela etorkinak hartzeko joera.60-70 eko hamarkadetan ere etorkinei harrera egin zien eta berdina gertatu da etorkinak etorri diren beste boladetan ere. Gainera, lehen A modeloa zegoen eta hori dela eta, agian, etorkinek ere, gure Ikastetxea erreferentzia edo aukera ona bezala ikusten zuten beren hizkuntzarengaitik. Hala ere, orain ez dago A modelorik eta B eta D modeloak baino ez ditugu. Baliteke, ongietorriak eta maitatuak izango direla esan dietelako. Ez litzateke guzurrea izango. Erakuneetan jarriko bagenu

begirada...Ikastetxe batzuetara edo besteetara bideratze horren zergatia non dagoen? Egia esan ez dakit, eta beraz, ezin dut erantzun fidagarririk eman.

- *Eusko jaurlaritzak zeozer egin lezakeela uste duzu?*

Egin dezake eta egin beharko luke. Hori argi dago. Nola izan daiteke ikastetxe publiko batzuetan etorkinik ez egotea? Edo oso etorkin gutxi egotea? Eta gero Samaniegon %99eko portzentaia? Badaude kopuru altuak dituztenak ere baina beste batzuk...ez. Hori bideratu beharko litzateke behintzat ghettoak deiturikoak sortzerik ez badugu nahi. Hor dago koska nik uste. “Ez badugu nahi” horretan. Guztiok NAHI dugu?

- *Zer proposatuko zenuke?*

Nire proposamena Eusko Jaurlaritzak hau kontuan hartzea eta bereizketak ez egitea. Ez egoteahiru Ikastetxe publiko mota: Lehenengoa, Ikastetxe publiko (euskaldun petopetoak) bigarrena, ikastetxe publiko (normalak edo sin más) eta hirugarrena, ikasle publiko (ghettoak). Etiketatzeke modu ironikoa erabili dut, baina uste dut ulertu daitekeela nondik noan. Nahastuta eta elkarrekin egon beharko lirateke denak. Guztiak dira “gureak” eta legeak dionaren arabera, guztiek dituzte hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntza hori bidezkoa izateko eskubidea.

- *Aporofobia ala arrazismoa?*

Galdera ona. Biak. Arrazismoa eta aporofobia. Nire ustez. Dirudun beltz bat ere, beltza izaten jarraitzen du eta askoren begietan konotazio negatibo bat izango du. “Ezberdin” ikusten duguna, beldurra ematen digu. Eta horri empatia falta gehitzen badiogu....

- *Ghetto hitzarekiko zer nolako jarrera duzu?*

Ez naiz oso aditua. Ghetto hitza eskusio sozialarekin erlazionatzen dut nik. Diskriminazioa, marginazioa, bidezkoa ez den zerbaitekin erlazionatzen dut. Ekiditu beharko litzatekeen zerbaitekin. Edo behintzat inboluntarioa denean. Baina boluntarioa denean ere, jakin beharko litzateke zergatik den boluntarioa,

zerk bultzatzen dituen aparte bizitzera...gizarte utopiko batean guettoak existituko lirateke?Nola jakin, izan ere,gure gizartea utopikoatik urrun dago oraindik.

- *Gurasoekin harremana erraza da?*

Denetarik dago. Egia da gurasoen portzentai handi bat ez dagoela bere umeen ikasketetaz oso pendiente. Edo ez behintzat, etorkinak ez direnen ikasleekin komparatuta. Kasu askotan gauza larriagoak dauzkate eskuartean eta bilera batera joatea ez da beti lehentasuna. Beste alde batetik, irakasleon hitza errespetatzen dute, ez dute zalantzan jartzen eta hori, gure gaur egungo gizartean, batzuetan ere lagungarri da. Nik hitz egin dudan gurasoak entzuteko prest ikusi ditut behintzat. Gero, kasu batzuetan, ahal dutena egiten dute.

- *Zer proposatuko zenuke egoera aldatu ahal izateko?*

Gurasoekiko harremanetaz galdetzen baduzu, egiten ari garen lanarekin jarraituko nuke. Gurasoak eskolaren eta bere seme alaben ikasketen parte direla adieraziz. Behar ditugula gogoraraziz.

- *Azkenik, laburbildu zure klasearen egoera esaldi esanguratsu batekin.*

Pixkat aldatu dezaket galdera?? Esk ez zait ateratzen erantzuna...baina buruan esaldi bat daukat gizarteari esateko, (empatia falta duen gizartearen zati horri) nire ikasleei buruz... Albo batera utzi nahi dituzun “hauek” pertsona zoragarriak dira eta mentalidade horrekin jarraituz gero ez dituzu inoiz ezagutuko. Ondorioa penagarria da. Hutsune ikusezin baina sakon bat eramango duzu beti soinean.

9.2.2.Elkarrizketa Irakasle kontzertatua

- *Zein da zure klasean dagoen ikasle etorkinen kopurua?*

0 ikasle etorkin daude nire gelan.

- *Horietako zeintzuk dira Gasteizen jaiok?*

-

- *Zure gelako haurren ikaskuntza arrakasta altua ala baxua da?*

Aipatzekoa da lehen hezkuntzako 1go mailako tutorea naizela. Beraz, oso zaila da ikaskuntza arrakasta neurtzea. Hala ere, “lectoescrituran” eta matematikako oinarriko helburuak %90ak bereganatu dituztela esango nuke.

- *Zure ustez ikasle etorkinen kopuruan emaitza horietan eragina du?*

Ez du izan beharrik. Egia da normalean bi hizkuntz ezberdinetara moldatu behar direla, eta horrek atzeratu dezakeela haien ikaskuntza prozesua, baina harrera plan egoki batekin, bai kontzeptuak baita eskola ere haien beharretara moldatu beharko litzatekete, eta ondorioz, eskolarengan atxikimendu positibo bat sortuko luke umeak, ikaskuntza arrakastatsu baten ardatza denaruntz abiatuz.

- *Ikasleengan zer nolako arrakasta esperantza kokatzen da?*

Normalean arrakasta ume guztiengan espero da. Beraz, espero ez dena porrota da. Horretarako, umearen garapen integrala bermatu behar da, ikaskuntza arrakasta ez baitelako nota onak ateratzea

- *Horrek haiengan eragina dauka?*

Noski baietz. Gehien bat haien familietatik somatzen eta jasotzen dutena alegia.

- *Ikasle etorkin gutxi egotean, sozialki bazterketak sortzen dituela uste duzu?*

Ghettoak sortzen direla uste dut. Ghetto etorkinak eta baita ghetto txuriak ere. Ez batak ez besteak ez direla onuragarriak uste dut, gizarte kulturarteko batentzako oso kaltegarriak baizik.

- *Gelako ikasleen artean etorkin gutxi egotean onurak ala kalteak sortzen ditu?*

Nire ustez ez dira ezta kalteak ezta onurak sortzen ere. Egoera ezberdinak sortzen ditu. Etorkin gutxi egoteak gizartearen errealitatetik aldentzen ditu umeak eta noski, arrazismoa sor dezake horrek.

- *Askotan komentatzen den bezala, uste duzu ikasle etorkinek gelako arrakasta mailaren portzentaia jaisten dutela? Zergatik?*

Ez. Ume bakoitzaren “motxila” behatu beharra dago, kanpotarra edo hemengo dela.

- *Zure ustez, gizartea arrazista ala aporofobikoa da?*

Nire ustez gizartek beldurra dio ezagutzen ez duenari. Beraz, beldur horrengatik fobiak eta gorrotoak agertzen dira. Aipatu beharra daukat egia dela gizarte honetarako ez dela berdina familia txiro edo aberats bat, biak etorkinak badira ere. Beraz, arrazismoak eta aporafobiak gizartean berrelikatzen direla uste dut.

- *Zein da zure ikasleen maila soziala orokorrean? Diru sarrera baxuak ala altuak dituzte?*

Nire ikasleen maila soziala erdi altua dela esango nuke. Horrela banatuko nituzke portzentaiak nire gelan (gutxi gora behera):

Maila altua: %25a

Erdiko maila: %50a

Maila baxua: %25a

- *Aldaketaren bat beharrezkoa ikusten duzu? Zein? Zergatik?*

Bai. Ghetto txuri eta etorkinen ghettoak desegitea. Eskolak gizartearen errealitatearen parte dira, eta ondorioz, geletan isladatuta egon beharko litzateke alderdi hori.

- *Nolakoa da zure gelako gurasoekin harremana?*

Gehiengo batean oso ona. Nahiko erraza da haiekin online kontaktua izatea eta behar izatekotan baita modu pertsonalean ere. Aipatzekoa da oso kasu gutxitan gurasoek ez dutela kontaktu mota hauetara erantzuten.

- *Laburbildu mesedez zure gelako egoera esaldi esanguratsu batekin.*

Gizartearen errealitatetik aldentzen den egoera.

9.2.3. Maite Fouasierren elkarrizketa

Buenos días. Mi nombre es Maider Salazar y estoy haciendo una investigación para el que será mi TFG. El tema de la investigación es la segregación escolar y por ello, me gustaría hacer unas preguntas relacionadas con ello.

- Presentación
 - *¿Cual es el objetivo del Observatorio vasco?*
 - *¿Cual es tu función?*

Ikuspegi – Observatorio Vasco de Inmigración es un organismo creado en el año 2003 a través de la firma de un Convenio de Colaboración entre la Dirección de Inmigración del Gobierno Vasco y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

El objetivo principal de Ikuspegi es conocer el fenómeno de la inmigración de origen extranjero lo mejor posible y para ello tiene dos claras líneas de trabajo:

- Investigar el fenómeno para poder ofrecer una información veraz sobre este fenómeno.
- Difundir la información disponible –propia o de terceros-, para que tanto las instituciones públicas y los agentes sociales implicados puedan tener esa información de forma fácil y sencilla; como para que el conjunto de la sociedad vasca pueda disponer de dicha información.

En el año 2003 el fenómeno de la inmigración de origen extranjero en el País Vasco estaba en ciernes y se empezaban a detectar los primeros flujos relevantes, aunque era una realidad todavía no relevante en términos cuantitativos. Esta inquietud por conocer una realidad que va tomando forma y de la que se conocía relativamente poco es la base para la creación del Observatorio, que nace con el objetivo principal de tener una fotografía lo más nítida posible del colectivo.

Con el paso del tiempo este primer acercamiento más descriptivo y de corte cuantitativo se ha ido modificando, en gran parte influido por los cambios que también se han ido dando a lo largo de estos años. De esta forma, se ha hecho especial hincapié en estos últimos años por conocer mejor el impacto de la crisis del colectivo inmigrante de origen extranjero o por profundizar en aspectos asociados a los procesos de integración e inserción del colectivo y sus hijos/as.

- Información general

- *¿Cómo valorarías el fenómeno migratorio de hoy en día?*
- *¿Notas la influencia del mismo? ¿En qué aspectos?*

Voy a comenzar apartando la realidad actual que estamos viviendo y que ya está afectando a la inmigración, y veremos en no mucho tiempo las consecuencias que esta pandemia global va a dejar en el colectivo.

Lo que es indudable es que el fenómeno migratorio es un hecho estructural. Ha venido para quedarse y, por lo tanto, todo trabajo en pro de la convivencia debe tener presente esta realidad. La evolución de los movimientos migratorios de los últimos veinte años ya nos lo indican, que incluso con una crisis económica los movimientos migratorios no desaparecieron, sino que podemos decir que se “adaptaron” a la situación socioeconómica, con la ralentización de las llegadas de ciertos orígenes latinoamericanos, el aumento de otros del mismo continente, o la llegada de población africana. En

definitiva, movimientos migratorios que reafirman la idea con la que he comenzado esta respuesta.

Si hace años, cuando este fenómeno era relativamente nuevo, se ponía el foco en la acogida y los sistemas que había para ello, en los últimos años no se ha olvidado de seguir manteniéndolo, pero también se ha mirado hacia la mejora de la convivencia, atender a la diversidad cultural en todas sus dimensiones, en la integración, etc.

- La inmigración en el sistema escolar

- *¿Crees que la segregación escolar existe en Euskadi? ¿En qué territorio histórico hay más?*
- *¿En cuanto al alumnado, el hecho de realizar la segregación escolar, qué efectos puede tener en ellos?*

Creo que no se puede decir en qué territorio hay más segregación escolar, porque no es asunto de en qué provincia encontremos mayor o menor segregación, sino que debemos de mirar más en concreto, es decir, en zonas/barrios/distritos/municipios con mayor concentración de población de origen extranjero y si eso queda reflejado en sus escuelas, o se da cierta movilidad a centros de titularidad pública, donde mayoritariamente se concentra alumnado de origen o ascendencia extranjera. Lo que sí es cierto que desde algunos colectivos relacionados con la escuela pública vasca se reclama cierto equilibrio en las matriculaciones para poder gestionar la diversidad mediante medidas eficaces y medios necesarios. La comunidad educativa percibe la diversidad cultural como algo positivo, pero reclama que se inviertan recursos para poder atenderla de manera óptima y garantizar una educación de calidad y para todas las personas.

- *¿La diversidad cultural es algo enriquecedor o dañino?*

La diversidad cultural es enriquecedora, siempre. Es decir, lo que no se puede es cerrar los ojos y negar que vivimos en una sociedad diversa, ya sea cultural, sexual, funcional, etc.

- *¿Es necesario un cambio? ¿Los profesores por su parte, podrían hacer algo?*
- *Socialmente, ¿ que supone realizar una diferenciación racial para los niños?*
- *En tu opinion, ¿estas diferenciaciones se deben a el racismo o a la aporofobia?*
- *¿Las políticas educativas podrian dar algun cambio en este ámbito?*
- *¿Por que no se realizan cambios?*
- *¿ Crees que este problema es algo nuevo o lleva activo unos años?*

Desde hace años el sistema educativo vasco intenta adaptarse a las necesidades que se han ido identificando con la llegada de alumnado extranjero, de cara a garantizar una educación de calidad, inclusiva, promoviendo oportunidades educativas para todo el alumnado. Es cierto que las múltiples realidades que se encuentra el profesorado en el aula supone en casos que todas las medidas que se han tomado desde las instituciones no hayan sido suficientes, y que los centros educativos hayan ido adaptándose como mejor han podido. En un estudio que realizamos hace uno años desde Ikuspegi recogíamos las percepciones del profesorado a este respecto, te paso el link directo:

https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigacion/eus/gazte_aniztasuna/P2_CAP1_voces_educacionEUS.pdf

Es decir, el profesorado considera que la diversidad cultural es positiva, y no encuentra grandes problemas de relaciones entre el alumnado, y cuanto más pequeños son, más fácil y normalizada es la interacción. Sin embargo, también

se destaca las dificultades con el idioma, las matriculaciones fuera de plazo, la concentración escolar en según qué centros educativos, la edad en que se escolarizan en el sistema vasco por primera vez y su inmersión lingüística en el modelo D, así como otros factores como las expectativas de las familias, su situación socioeconómica y la idea de establecerse en Euskadi o migrar a otro territorio. Si los medios y los recursos no son suficientes y las políticas que se toman al respecto para atender a las necesidades del alumnado no abarcan todas las solicitudes que desde la comunidad educativa se hacen, el profesorado se va acoplando a las situaciones que va encontrándose en el aula. Existen planes y programas que desde el Departamento de Educación van generando a tenor de estas necesidades que se van identificando. El último plan de atención al alumnado inmigrante recogió algunas de estas demandas que se llevaban tiempo haciendo, aunque habrá que preguntar al profesorado si las ha visto implementadas y qué opiniones tiene al respecto. El tema de las matriculaciones, el criterio de reparto ante las matriculaciones fuera de plazo entre la red pública y la concertada, creo que fue uno de los puntos que se abordaron en uno de los últimos planes generados por Educación y que interesaba a la comunidad educativa que se tomara cartas en el asunto. Pero lo dicho, creo que es el profesorado y las direcciones de los centros quienes pueden tener una visión más aproximada si se han implementado tales medidas.

Al final, a día de hoy la escuela se encuentra con una diversidad cultural que incluye desde el alumnado recién llegado desde origen, a quienes se han incorporado al sistema educativo vasco desde edades muy tempranas hasta quienes ya han nacido en el territorio vasco y por lo tanto están llevando el mismo itinerario formativo que quienes provienen de familias autóctonas. Habrá que ver si desde los centros perciben diferencias entre el alumnado, de qué tipo, si tiene que ver por las diferencias socioeconómicas y culturales, las expectativas que tienen hacia sus hijos e hijas, así como las expectativas que la sociedad pone en ellos.

9.3. Errekabarri Harrera Plana

https://doc-0g-6g-apps-viewer.googleusercontent.com/viewer/secure/pdf/tngdk84i8a3fmqsqq0fpdpub8vgo0vpg/i06qqdtu367q5f9mlvhjfkpn4n8qr52/1589456775000/gmail/14693930720923886478/ACFrOgAa7jRxfyEKNC7PW9gZrFr05JWCWsAlrek6lJVEMHc5FLO03KZPjfR-ot92wtYcuPTKwupvg-LiWJ4sjQ_oB9It9FWmhq5IPf4HXvIWmzOLjiniqQ94ccVkjB5s=?print=true&nonce=dtchote9c6mvi&user=14693930720923886478&hash=vkmqfpqvao pm85pzb4c59tcp8311i0s5